



## 203. araua

# Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO) EBO (VI). Zenbakizko adierazpenak

Euskaltzaindiak data eta leku hauetan onartua:  
2025eko urriaren 31n, Donostian  
2025eko abenduaren 19an, Baionan

## AURKIBIDEA

<b>1 Zenbakiak eta zenbakizko adierazpenak</b> .....	3
<b>2 Euskaltzaindiak zenbakizko adierazpenei buruz emandako arauak</b> .....	3
<b>3 Zenbakera-sistemak: zenbaki erromatarrak eta zenbaki arabiarrak</b> .....	4
3.1 Zenbaki erromatarrak.....	4
3.1.1 Zenbaki erromatarrak idazteko arauak.....	4
3.1.2 Zenbaki erromatarren erabilera .....	7
3.2 Zenbaki arabiarrak.....	10
3.2.1 Zenbakiak zifraz idaztean kontuan hartu beharrekoak.....	10
3.2.1.1 Digtuak hirunaka antolatzea.....	11
3.2.1.2 Digtuak hirunaka ez antolatzea .....	13
3.2.1.3 Zenbaki dezimaldunak eta markatzaile dezimala .....	14
<b>4 Zenbaki kardinalak</b> .....	16
4.1 Zenbaki handiak adieraztea: <i>bilioi</i> hitzaren auzia; eskala luzea eta eskala laburra.....	22
4.2 Zenbaki positiboak eta zenbaki negatiboak.....	23
<b>5 Zenbaki ordinalak</b> .....	24
<b>6 Zenbaki frakzionarioak</b> .....	27
<b>7 Ehunekoak</b> .....	30
7.1 Ehunekoen idazkera eta irakurbidea .....	30
7.2 Ehuneko negatiboak.....	32
<b>8 Banatzaileak</b> .....	32
<b>9 Biderkatzaileak</b> .....	34
<b>10 Zenbatzaile kolektiboak</b> .....	35
10.1 Zenbatzaile kolektiboak irudi geometrikoak izendatzeko .....	35



<b>11 -tar atzizkiaren erabilera zenbakiekin .....</b>	<b>37</b>
<b>12 Zenbakiei artikulua eta kasu-markak jartzean kontuan hartu beharrekoak.....</b>	<b>37</b>
12.1 <i>Hamaika</i> (11) eta <i>mila</i> (1000) .....	38
12.2 <i>Hiru</i> (3) eta <i>lau</i> (4) .....	39
12.3 Artikulua eta kasu-markak zenbaki ordinaletan .....	41
<b>13 Zifrak ala hitzak? Zer erabili zenbakizko adierazpenak idaztean .....</b>	<b>41</b>
13.1 Noiz idatzi zenbakiak letraz .....	42
13.2 Noiz idatzi zenbakiak zifraz .....	44
13.3 Zenbakiak zifraz idatzita esaldiaren hasieran .....	47
13.4 Noiz idatzi zenbakiak letraz eta zifraz.....	47
<b>14 Ordua adieraztea.....</b>	<b>48</b>
14.1 Ordua letraz edo zifraz idaztea .....	48
14.2 Orduaren notazioa: hamabi orduko sistema eta hogeita lau orduko sistema.....	49
14.3 Orduak zifraz idaztea. Artikulua eta kasu-markak .....	51
14.3.1 Artikulurik eta markarik gabe.....	51
14.3.2 Artikulua eta kasu-markak jartzea.....	52
14.3.2.1 Minutuak zero direla adieraztea .....	52
14.3.2.2 Minutuak zero ez direla adieraztea.....	56
14.3.2.3 Minutuak hamabost direla adieraztea .....	56
14.3.2.4 Minutuak hogeita hamar direla adieraztea .....	58
14.3.2.5 Hurrengo ordurako zenbat falta den adieraztea.....	60
14.3.2.6 Segundoak ere adieraztea.....	63
14.3.3 Gutxi gorabeherako ordua adieraztea.....	64
<b>15 Data adieraztea.....</b>	<b>64</b>
15.1 Hitzen eta zifren konbinazioa data adierazteko.....	65
15.2 Data zifra bidez adieraztea .....	66
15.3 Dataren adierazpen laburtua.....	66
<b>16 Urtea adieraztea eta urtearen adierazpen laburtua.....</b>	<b>67</b>
<b>17 Hamarkada adieraztea.....</b>	<b>68</b>
<b>18 Mendea eta milurtekoa adieraztea.....</b>	<b>69</b>
<b>19 Iraupena adieraztea .....</b>	<b>69</b>



## 1 Zenbakiak eta zenbakizko adierazpenak

*Zenbaki* hitza, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arabera, multzo batek dauzkan unitateen adierazpena da, eta, halaber, adierazpen horri dagokion ikurra.

Berez, kontzeptu abstraktua da zenbakia, kantitateak zenbatzeko, magnitudeak neurtzeko eta etiketatzeko erabilia. Hala, zenbatzearen emaitza da zenbakia, edo kantitate baten eta haren unitatetzat hartzen denaren arteko erlazioa (neurtzearen emaitza) edo etiketatzaren emaitza.

Zenbakiak idazteko, sinboloak erabil daitezke, eta sinbolo horietako bakoitzari *zifra* edo *digitu* esaten zaio. Nazioartean, gaur egun, zenbaki-sistema hamartarra da nagusia; sistema horretan, edozein zenbaki adieraz daiteke hamar zifra —hamar digitu— hauek behar beste aldiz baliatuta: **0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8** eta **9**. Esate baterako, **1705** zenbaki bat da, eta lau zifra edo lau digitu ditu, hots, lau zifrako edo lau digituko zenbaki bat da. Zenbakiak idazteko, baina, hitzak ere erabiltzen dira, eta zenbaki bat adierazten duen hitz edo hitz-kate bakoitzari *zenbatzaile* deritzo (zehazki, *zenbatzaile zehaztu* deritzo). Hala, **zero, hiru, berrogei, ehun eta hogeita bost, mila...** zenbatzaileak dira.

Zenbakien bidez, kantitateak eta kopuruak adierazten dira. Askotariko zenbakizko adierazpenak erabiltzen ditugu egunerokoan: neurriak, datak eta denborabitateak adierazteko, eragiketa matematikoak egiteko, hurrenkerak antolatu eta etiketatzeko, kodeak sortzeko, etab. Zenbakizko adierazpenak era askotakoak dira, eta adierazpen horietarako zenbaki-motak bananbanan deskribatu eta erabiltzeko irizpide eta gomendioak ematea da kapitulu honen xedea.

## 2 Euskaltzaindiak zenbakizko adierazpenei buruz emandako arauak

Euskaltzaindiak emanak ditu jada zenbakiei buruzko oinarrizko zenbait arau. Hauek dira:

- 7. araua. *Zenbakien idazkeraz* (1994)  
Zenbaki kardinalen idazkera zehazten du.
- 8. araua. *Zenbakien deklinabideaz* (1994)  
*Hiru* eta *lau* zenbatzaileek kasu-markak nola hartzen dituzten zehazten du.
- 12. araua. *Bat eta batzuk* (1994)  
*Bat* zenbatzaileak kasu-markak nola hartzen dituen zehazten du.
- 18. araua. *Ordinalen eta banatzaileen idazkera* (1994)  
Zenbaki ordinalen eta zenbaki banatzaileen idazkera zehazten du.
- 34. araua. *Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia* (1995)  
Joskerari buruzko araua da, ez idazkerari buruzkoa, baina zenbatzaileak aipatzen ditu.
- 35. araua. *Orduak nola esan* (1995)  
Orduen idazkera zehazten du.
- 37. araua. *Data nola adierazi* (1995)  
Data adierazteko moduak zehazten ditu.



- 110. araua. *Iraupena eta maiztasuna adierazten duten sintagma zenbatzailedunetan mugatu singularra noiz erabil daitekeen* (2000)

Joskerari buruzko araua da, ez idazkerari buruzkoa, baina zenbatzaileak aipatzen ditu.

Arau ia guztiak araugintza ofizialaren hasierakoak dira, XX. mendearen bukaerakoak, eta batzuk osatu eta eguneratuko dira lan honetan, hizkuntzak azken urteotan izan duen garapena jaso eta sortu diren premia berriei erantzuteko.

### 3 Zenbakera-sistemak: zenbaki erromatarrak eta zenbaki arabiarrik

Alfabeto latinoan duten hizkuntzetan, bi zifra-mota erabiltzen dira zenbakiak idazteko. Zenbakera erromatarrean, alfabeto latinoko zazpi letra baliatzen dira, letra bakoitzak balio finkoa duela; hala sortzen dira zenbaki erromatarrak. Zenbakera arabiarrean, hamar sinbolo baliatzen dira zenbakiak idazteko, eta sinbolo bakoitzaren balioa aldatu egiten da zenbakian duen posizioaren arabera; hala sortzen dira zenbaki arabiarrik.

Zenbaki erromatarrak duela 3000 urte inguru hasi ziren erabiltzen, eta ohikoak izan ziren Europan Behe Erdi Arara arte. Zenbaki arabiarrik IX. mendean hedatu ziren mundu musulmanean, eta X. mendearen amaieran iritsi ziren Europako mundu kristaura Iberiar penintsulatik. Pixkanaka hedatuz joan ziren, eta XV. mendea ezkerre nagusitu ziren; horregatik, zenbaki erromatarrak testuinguru jakin batzuetan baino ez dira erabiltzen gaur egun.

#### 3.1 Zenbaki erromatarrak

Zenbaki erromatarrak idazteko, alfabeto latinoko zazpi letra larri erabiltzen dira. Hauek dira letra horiek (digituak) eta bakoitzaren balioa:

SINBOLOA	I	V	X	L	C	D	M
BALIOA	1	5	10	50	100	500	1000

##### 3.1.1 Zenbaki erromatarrak idazteko arauak

Zenbaki erromatarrak ezkerretik eskuinera irakurtzen dira (zenbaki arabiarrik bezala), baliorik handienekoetatik txikienekoetara.

- Elkarren ondoan digitu berdinak idazten direnean, haien balioak batu egiten dira.

$$II = 1 + 1 = 2; XXX = 10 + 10 + 10 = 30$$

Hala ere, digitu bera ezin da hiru aldiz baino gehiagotan errepikatu elkarren ondoko posizioetan. Adibidez, 40 adierazteko, **XL** idazten da, eta ez **\*XXXX**<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> **IV**, **XL** eta **CD** notazioa estandarrena bada ere, haien ordez **IIII**, **XXXX** eta **CCCC** ere erabili izan ziren, bai eta konposatuetan ere, hala nola **XXXIIII** (34), **LXXIIII** (74) edo **CCCCLXXXX** (490).



- **V**, **L** eta **D** ez dira inoiz errepikatzen, badaudelako haien baturaren balioa duten digituak.

$$*VV \Rightarrow X$$

$$*LL \Rightarrow C$$

$$*DD \Rightarrow M$$

- Bi digitu desberdin elkarren ondoan agertzen badira, bien balioak batu egiten dira ezkerrekoaren balioa eskuinekoaren balioa baino handiagoa denean.

$$VI \Rightarrow V \text{ handiagoa da } I \text{ baino: } VI = 5 + 1 = 6$$

$$LX \Rightarrow L \text{ handiagoa da } X \text{ baino: } LX = 50 + 10 = 60$$

$$XXXVIII \Rightarrow (10 + 10 + 10) + 5 + 3 = 38$$

- Bi digitu desberdin elkarren ondoan agertzen direnean eskuinekoaren balioa ezkerrekoaren balioa baino handiagoa izanik, eskuinekoari ezkerrekoaren balioa kentzen zaio. Kasu horietan, ezkerreko digitua **I**, **X** edo **C** izan daiteke; **V**, **L** eta **D** digituak, berriz, ez dira inoiz baliatzen kenzaile gisa.

$$IV \Rightarrow I \text{ txikiagoa da } V \text{ baino: } IV = 5 - 1 = 4$$

$$IX \Rightarrow I \text{ txikiagoa da } X \text{ baino: } IX = 10 - 1 = 9$$

$$XL \Rightarrow X \text{ txikiagoa da } L \text{ baino: } XL = 50 - 10 = 40$$

$$XC \Rightarrow X \text{ txikiagoa da } C \text{ baino: } XC = 100 - 10 = 90$$

$$CD \Rightarrow C \text{ txikiagoa da } D \text{ baino: } CD = 500 - 100 = 400$$

$$CM \Rightarrow C \text{ txikiagoa da } M \text{ baino: } CM = 1000 - 100 = 900$$

$$XIV \Rightarrow I \text{ txikiagoa da } V \text{ baino; bien kendura } X \text{ri batzen zaio. Honela:}$$

$$XIV = 10 + (5 - 1) = 14$$

$$*VL = 45; \text{ ez da posible, } V \text{ ez delako erabiltzen kenzaile gisa. Honela behar du:}$$

$$45 = XLV \Rightarrow 45 = 40 + 5 \Rightarrow XL + V$$

- **I**, **X**, **C** eta **M** digituak beren hurrengo balio handiagoko 5 oinarriko digituen (**L** eta **D**) eta 10 oinarriko digituen (**X**, **C** eta **M**) kenzaile izan daitezke, baina ez balio handiagokoen kenzaile.

$$*IL \Rightarrow \text{ez da posible, } I \text{ digituaren balio handiagoko 5 oinarriko hurrengo digitua } V \text{ delako.}$$

$$*IC \Rightarrow \text{ez da posible, } I \text{ digituaren balio handiagoko 10 oinarriko hurrengo digitua } X \text{ delako.}$$

$$*XM \Rightarrow \text{ez da posible, } X \text{ digituaren balio handiagoko 10 oinarriko hurrengo digitua } C \text{ delako.}$$



- Zenbaki arabiarretan zeroaren zifra jartzen den tokian, zenbaki erromatarretan ez da ezer jartzen. Adibidez:

$$170 = C + LXX = CLXX$$

$$306 = CCC + VI = CCCVI$$

$$1008 = M + VIII = MVIII$$

$$2026 = MM + XX + VI = MMXXVI$$

- Sistema hori erabiliz idatz daitekeen zenbakirik handiena **MMMCMXCIX** da (3999). Hortik gorako balioak idazteko, marra horizontal bat jartzen da zenbakiaren gainean, adierazteko digitu hori 1000 zenbakiaz biderkatuta dagoela.

$$\overline{IV} \Rightarrow 4000$$

$$\overline{V} \Rightarrow 5000$$

$$\overline{XXV} \Rightarrow 25\,000$$

Zenbaki arabiarren eta dagozkien zenbaki erromatarren taula

ARABIARRA	ERROMATARRA	ARABIARRA	ERROMATARRA	ARABIARRA	ERROMATARRA
1	I	17	XVII	200	CC
2	II	18	XVIII	300	CCC
3	III	19	XIX	400	CD
4	IV	20	XX	500	D
5	V	21	XXI	600	DC
6	VI	22	XXII	700	DCC
7	VII	23	XXIII	800	DCCC
8	VIII	24	XXIV	900	CM
9	IX	30	XXX	1 000	M
10	X	40	XL	2 000	MM
11	XI	50	L	3 000	MMM
12	XII	60	LX	4 000	$\overline{IV}$
13	XIII	70	LXX	5 000	$\overline{V}$
14	XIV	80	LXXX	10 000	$\overline{X}$
15	XV	90	XC	100 000	$\overline{C}$
16	XVI	100	C	1 000 000	$\overline{M}$



### 3.1.2 Zenbaki erromatarren erabilera

Zenbaki erromatarrak, zenbaki arabiarrek bezala, kardinalak dira; ez dira berez ordinalak. Zenbaki erromatar ordinalak idazteko, puntu bat lotu behar zaie eskuinean, zenbaki arabiarrei bezalaxe<sup>2</sup>.

KARDINALA: **X urtean** (hamar urtean); **III dinastia** (hiru dinastia)

ORDINALA: **X. urtean** (hamargarren urtean); **III. dinastia** (hirugarren dinastia)

(EGOKIA) **Joana III.a erregina; Retegi II.a pilotaria**

(DESEGOKIA) **Joana III erregina; Retegi II pilotaria**

Kasu hauetan erabiltzen dira zenbaki erromatarrak:

- Pertsona-izenei lotzen zaizkien zenbaki dinastiko edo serie-zenbakietan: erregeerreginak, enperadore-enperatrizak, aita santuak, dinastiak, kirolariak.

Elisabet I.a Ingalaterrakoa, Antso III.a Gartzzeitx, Luis XIV.a, Katalina II.a Errusiakoa; Napoleon III.a

Benedikto XVI.a aita santua, Joan XXIII.a aita santua

Ramses II.a Egiptoko XIX. dinastiako hirugarren faraoia izan zen.

Zelai III.a herri-kirolariaren benetako izena Karmele Gisasola da.

Atano III.a, askoren ustez, inoizko pilotaririk handiena izan zen.

- Mendeetan eta milurtekoetan<sup>3</sup>.

XV. mendean 70 herritar baino gehiago erre zituzten Durangon, heresia leporatuta.

XIX. mendeko euskal literatura

K.a. V. mendean, Atenas zen Greziako polisik garrantzitsuena.

Hizkuntza indoeuroparreko herriak K.a. II. milurtekoan iritsi ziren.

<sup>2</sup> Herri-kiroletan, eta batez ere pilotan, kirolarien elastikoetan ez da beharrezkoa zenbaki erromatarraren amaieran puntua jartzea eta artikulua idaztea, ezta partidaren emaitza adierazteko markagailuetan ere, ulertzen baita izen horiek etiketa modukoak direla eta, inplizituki, ordinal modura hartu behar direla. Irakurtzean, ordinal gisa irakurri behar dira. Testuan, berriz, puntua eta artikulua jarri behar dira.

Elastikoetan: **Olaizola II** (irakurri: "olaizola bigarrena")

Emaitza emateko: **Altuna III 22 - Jaka 21** (irakurri: "altuna hirugarrenak hogeita bi...")

Testuan, berriz: Jokin Altuna Altuna, pilota-arloan **Altuna III.a** deituraz ezaguna.

<sup>3</sup> Data zifraz adieraztean, zenbaki erromatarrak erabili izan dira hilabetea idazteko. Ikus 15.2 puntua.




- Monumentu, oroitarri eta plaketako idazkuntan, urteak adierazteko. Eraikin batzuen fatxadetan ere ezartzen zen, eraikitze-urtea adierazteko.



Dena dela, zahar-kutsua emateko baino ez da erabiltzen; gaur egun, zenbaki arabiarrak baliatzen dira inaugurazio-urteak adierazteko.

- Erloju-diskoetan, orduak adierazteko.



- Erregimen politikoaren izenetan.

II. Errepublika aldarrikatu zen Eibarren 1936an.

François Mitterrand izan zen Frantziako V. Errepublikako lehen presidente sozialista.

1940ko ekainean, III. Reicheko tropek Irun eta Hendaia arteko zubia okupatu zuten.

Frantzian, errepublika aldarrikatuta amaitu zen II. Inperioa, 1870ean.

II. urteko thermidorraren 10ean gillotinatuta zuten Robespierre (1794ko uztailaren 28an)<sup>4</sup>.

<sup>4</sup> Frantziako Iraultzaren ondoren erabiltzen hasi zen egutegi errepublikanoko urteak ere zenbaki erromatarrez adierazten dira (1792ko irailaren 22an du hasiera egutegi horretako I. urteak, eta azken urtea XIV.a da, 1805. urtea, bertan behera gelditu baitzen orduan egutegi hori).



- Biltzar, txapelketa, topaketa, olinpiar joko, jaialdi, sariketa eta kidekoetan.

Euskaltzaindiaren XVII. Biltzarra Arantzazun egin zen 2018an.

Euskadiko Trikitilari Gazteen X. Txapelketa

Vatikanoko II. Kontzilioa

Munichen egin zen XX. Olinpiada, 1972an.

Euskal Herriko Eskolarteko XIX. Bertsolari Txapelketa

Organo Erromantikoaren Nazioarteko XXII. Zikloa

Ekonomia Zirkularraren Nazioarteko VI. Topaketa

#### OHARRA

Zenbakia handia denean, zenbaki arabiarrak erabili ohi dira.

Zinemaldiaren 71. edizioari amaiera emateko ekitaldia

- Liburukiz edo faszikuluz osatutako obra eta aldizkari batzuen izenburuetan, zenbatgarrena den adierazteko<sup>5</sup>, bai eta antzezlanen ekitaldiak zenbakitzeko ere. Liburuen atalak izendatzeko ere erabiltzen dira (baina zenbaki arabiarrak ere baliatzen dira horretarako).

*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak IV (EGLU-IV)*

*Euskararen Herri Hizkeren Atlasa (VI. liburukia)*

*Eratzunen jauna II*

ASJU XXV

*Hamlet obraren III. ekitaldia*

- Liburuetan, hitzaurrea, aurkibidea eta hasierako orrialdeak zenbakitzeko ere baliatzen dira batzuetan, bai eta eranskinak edo taulak zenbakitzeko ere. Kasu horretan, letra larriak edo letra larri xeheak erabiltzea estilo-aukera da.

iii. kapitulua / III. kapitulua

#### OHARRA

Zenbaki erromatarrak letra xehez idatzita erabiltzen dira, batzuetan, zerrendak edo liburuetako atalak zenbakitzeko. Estilo-aukera bat da, baina ez da beharrezkoa.

iii. kapitulua

xvi. taula

<sup>5</sup> Zenbatgarrena den adierazten badute ere, obraren izenburuaren amaieran daudenean ohikoa da punturik gabe idaztea, eta ez dira beti ordinal modura irakurtzen. Adibidez, beheko lehen adibidea “eglu lau” irakur daiteke, eta bigarrena “eratzunen jauna bi”.



- Idatzizko obretako testuaren zati nagusiak nabarmentzeko eta ezartzeko, titulu, azpitolu eta epigrafeak erabiltzen dira. Haiak zenbakitzeko, sistema bat baino gehiago dago, eta batzuetan zenbaki erromatarrak erabiltzen dira lehen maila identifikatzeko (nazioarteko estandarrak, dena dela, zenbaki arabiarrak baino ez ditu baliatzen).

### I. Biokimikaren oinarriak

1. Biziaren logika molekularra
2. Zelulak
3. Biomolekulak
4. Ura: disolbatutako molekuletan duen eragina

### II. Egitura eta katalisia

5. Aminoazidoak eta peptidoak
6. Proteinak: sarrera

(...)

- Sismologian, lurrikaren intentsitatea neurtzen duen Mercalli eskalaren graduak adierazteko, zenbaki erromatarrak erabiltzen dira.

*Lurrikara Mercalli eskalako VIII. gradura iritsi zen.*

- Itsasontzi eta bestelako ibilgailuetan

Izen bereko itsasontzi bat baino gehiago dagoenean, zenbaki erromatarra jartzen da izenaren ondoren zenbatgarrena den adierazteko.

*Atzoko estropadan, *Torrekua II.ak* egin zuen denborarik onena ziabogarainoko tartean.*

## 3.2 Zenbaki arabiarrak

Bi zifra-tipo daude zenbaki arabiarrak idazteko: zifra larriak eta zifra xeheak (zifra elzevirtarrak ere deituak). Zifra larriak dira ohikoenak eta erabilienak: zifra guztiek altuera uniformea dute, letra larrien altuera bera, eta guztiek oinarri-lerro bera dute. Zifra xehe edo elzevirtarrek, berriz, altuera aldakorra dute, eta zifra batzuek goranzko edo beheranzko trazuak dituzte eta oinarri-lerroa gurutzatzen dute.

ZIFRA LARRIAK	<u>0123456789</u>
ZIFRA XEHEAK	<u>0123456789</u>

### 3.2.1 Zenbakiak zifraz idaztean kontuan hartu beharrekoak

Zenbaki arabiarrak zifraz idazteko arauak eskolan ikasten dira; ez dagozkio, berez, ortotipografiari, baina digituak nola multzokatu eta zenbaki dezimaldunak nola adierazi finkatu beharreko alderdiak dira, eta badute zerikusia ortotipografiarekin.



### 3.2.1.1 Digtuak hironaka antolatzea

Zenbakia osatzen duten digituak bata bestearen ondoren idazten dira, haien artean zuriunerik utzi gabe, osotasun bat eratuta, kantitate bakar baten adierazpen grafiko gisa identifikatu ahal izateko, hitza osatzen duten letrak bata bestearen ondoren idazten diren bezala. Hala, **35,729** edo **4687** idazten da, eta ez **3 5, 72 9** edo **46 87**.

Hala ere, zenbaki batek digitu asko dituenean, digitu guztiak bata bestearen ondoan jarrita nekeza gertatzen da zenbakia irakurtzea. Osagai bat eta lau osagai bitarteko kopuruak bistaritzen direnean, behatzaileak azkar, doi eta ziur erabakitzen du osagaikopurua, baina frogatuta dago lau baino gehiago direnean doitasuna eta segurantzua jaisten hasten direla eta erantzun-denborak nabarmen luzatzen direla<sup>6</sup>. Digtuak taldekatuz gero, azkarrago antzematen zaio digitu-kopuruari, begi-kolpe batez, digituak banan-banan irakurri eta zenbatu beharrik gabe. Alderatu, adibidez, bi idazkera hauek:

1000000000 eta 1 000 000 000

Garbi dago eskuineko zenbakia errazago eta azkarrago identifikatzen dela. Horregatik, hironaka antolatu ohi dira digituak, eskuinetik hasita (edo, zenbaki dezimaldunetan, parte osoan, markatzaile dezimaletik ezkererantz), eta markatzaile edo zedarriztaile bat erabiltzen da hirukote bakoitza gainerako digitu-multzoetatik bereizteko. Hego Euskal Herrian, ohikoa izan da milakoen markatzaile hori puntu bat izatea. Adibidez, **256089** zenbakia honela idaztea: **256.089**. Sistema hori, baina, ez da nazioartekoa.

Herrialde askotan (adibidez, Erresuma Batuan, Ameriketako Estatu Batuetan, Australian...), puntua baliatzen da zenbaki dezimaldunetan zati osoa eta zati dezimala bereizteko (ikus 3.2.1.3), eta koma, berriz, milakoen markatzailea da. Herrialde horietan, beraz, **256.089** zenbakia ikusita, zenbaki dezimalduntzat hartzen da, eta gure ingurunean (hala euskaraz nola gaztelaniaz eta frantsesez) **256,089** idazten den zenbaki dezimalduna, berriz, ez dute dezimaldun gisa ulertzen.

Puntuaren eta komaren balio-bitasun hori nazioartean arazo-iturri eta gaizkiulertuetarako bide izan daitekeenez, nazioarteko arauak argi eta garbi zehazten dute, aspalditik, ez puntua eta ez koma ez direla erabili behar digitu-multzoak bereizteko zenbakiak idaztean. Pisu eta Neurrien Konferentzia Orokorrak (CGPM) honela erabaki zuen 1948an:

«Zenbakietan, koma (frantsesaren erabilera) edo puntua (ingelesaren erabilera) zenbakien zati osoa zati dezimaletik bereizteko baino ez da erabiltzen».

Eta 2003an berretsi eta zehaztu egin zuen erabakia. Honela:

«Markatzaile dezimalaren sinboloa lerro gaineko puntua zein lerro gaineko koma izan daiteke.

Irakurketa errazteko, zenbakiak hiru zifrako taldetan zatitu daitezke; talde horiek ez dira inoiz ez puntu ez koma bidez bereizi behar».

<sup>6</sup> XX. mendearen erdialdean E.L. Kaufman-ek frogatua. Hark sortua da *subitizazio* terminoa: osagai-kopuru jakin bat ikusi eta supituan, zenbatu gabe, zenbat osagai diren zehaztea.



ISO estandarizazio-erakunde nagusiak ere gauza bera dio ISO/IEC 80000-1 arauan.

Nazioartean finkatutako erabilera hori arauzkoa da gaztelaniaz eta frantsesez ere<sup>7</sup>.

Eta nazioartean eta gure inguruko hizkuntzetan aspalditik indarrean den arau horrek berdin balio du euskararako ere. Euskaraz, horrenbestez, **irakurketa errazteko, zenbakiak hiru zifra taldetan zatitu daitezke, eta, talde horiek bata bestetik bereizteko, zuriune bat erabiltzea da gomendioa, nazioarteko arauak eta gure bi auzoerdara nagusietako arauak ezartzen duten moduan**<sup>8</sup>.

Zenbaki osoetan:

(EGOKIA)<sup>9</sup> 36 524; 256 089; 1 000 000

Zenbaki dezimaldunetan:

(EGOKIA)<sup>10</sup> 123 456 789,987 546

Markatzaile dezimalaren eskuinera edo ezkerrera lau digitu bakarrik daudenean, ohikoena da digituak ez taldekatzea, hau da, zuriunerik ez jartzea.

(EGOKIA) 7895; 12,5089; 4712,3958; 0,2647

(EZOHIKOA) 7 895; 12,508 9; 4 712,395 8; 0,264 7

<sup>7</sup> *Ortografía de la lengua española* (RAE, 2010):

#### 2.2.1.1 Los números enteros y el separador de millares

No deben utilizarse ni el punto ni la coma para separar los grupos de tres dígitos en la parte entera de un número. Para ello solo se admite hoy el uso de un pequeño espacio en blanco.

*Lexique des règles typographiques en usage à l'Imprimerie nationale* (Imprimerie nationale, 2002):

#### Nombres

Les nombres en chiffres exprimant une quantité s'écrivent par tranches de trois chiffres (tranches de mille) séparées par une espace insécable et *non dilatable*, tant pour la partie entière que pour la partie décimale. Ces groupes sont constitués en allant vers la gauche pour la partie entière, vers la droite pour la partie décimale, à partir de la virgule :  
74 835,140 71

<sup>8</sup> Ohitura hedatua eta errotua da Hego Euskal Herrian zuriunearen ordeztua puntua erabiltzea, eta ohitura errotuak ez dira egun batetik bestera aldatzen. Testuinguru horretan ulertu behar da gomendioa, eta ez digitu-taldeak bereizteko puntua erabiltzearen aurkako debeku irmo gisa, baina komeni da euskara alderdi formaletan (eta ortotipografia alderdi formala da) ez bereiztea auzo-erdaretatik auzo-erdara horiek bat datozenean.

<sup>9</sup> Nazioarteko arauak ezartzen dutenaren arabera, digituak hiru taldekatu gabe ere idatz daitezke zenbakiak: 36524; 256089; 1000000.

<sup>10</sup> Nazioarteko arauak ezartzen dutenaren arabera, digituak hiru taldekatu gabe ere idatz daitezke zenbakiak: 123456789,987546.



## OHARRA

Lau digituko zenbakietan, zenbakia testuan txertatua dagoenean, ohikoa da zuriunerik ez jartzea. Dena dela, zutabe batean antolatuta zenbaki asko jarri behar direnean, lau zifrakoei zuriunerik jartzen ez bazaie eta gainerakoei bai, ezinezkoa da ondo lerrokatzea, hau da, ordena bereko guztiak lerro bertikal berean gertatzea (batekoak batekoekin, hamarrekoak hamarrekoekin, ehunekoak ehunekoekin, milakoak milakoekin...). Horregatik, zutabeetan bost digitu edo gehiago dituzten zenbakiak daudenean, denei jartzen zaie zuriunea, baita lau digitukoei ere.

	(EGOKIA)		(DESEGOKIA)
A	12 000	A	12 000
B	7 000	B	7000
C	153 250	C	153 250
D	925	D	925

## OHARRA

Zenbakiak testuan idaztean, ziurtatu behar da zenbakiaren digitu guztiak lerro berean gelditzen direla. Hau da, zenbakia ezin da zatitu bi lerrotan. Hori ez gertatzeko, komeni da testuprozesadoreetako zuriune banaezina erabiltzea<sup>11</sup>.

(EGOKIA) 12 578 936  
 (DESEGOKIA) 12 578  
 936

### 3.2.1.2 Digituak hiruak ez antolatzea

Zenbakiak kantitate bat adierazten ez badu, hau da, dena delako elementu batek serie batean duen posizioa adierazten badu, zenbakiak ez dira zatitzen. Kodeetako zenbakiak ere ez dira zatitzen. Hauek dira kasurik ohikoenak:

- Urteak.

(EGOKIA) 2025ean; K.a. 30000. urtean; K.o. 1027an

(DESEGOKIA) 2 025ean; K.a. 30 000. urtean; K.o. 1 027an

Urte-kopurua adierazten badu, berriz, zatitu daiteke:

Duela 30 000 urte gertatu zen.

<sup>11</sup> Zuriune banaezina honela idazten da Microsoft Worden eta Open Officeen: **Ctrl+Maius+zuriunea**; Windowsen aplikazio guztietan, **Alt+0160** edo **Alt+255** (zenbakizko teklatuan). Mac OSen, **Option+zuriunea**.



- Posta-kodeak, posta-kutxak, helbideak.

64100 Baiona

Chicagon bizi da, helbide honetan: 10760 South Langley Avenue.

- Orrialde-zenbakiak.

*Encyclopædia Britannicaren* 10475. orrialdea

Orrialde-kopurua adierazten badu, eta ez hurrenkera, zatitu daiteke:

Ingurumen-inpaktuaren azterketak 20 000 orrialdetik gora zituen.

- Kodeak, erregistro-zenbakiak, matrikulak eta kidekoak.

BOE-A-2011-12628

Txasis-zenbakia: 61785

ISO 31000

Pasaporte-zenbakia: 075649

Nortasun-agiria: 14787442X

Telefonoa: 686342109<sup>12</sup>

### 3.2.1.3 Zenbaki dezimaldunak eta markatzaile dezimala

Zenbaki dezimaldunek bi zati dituzte: zati osoa (unitatea eta haren multiploak dituena) eta, ondoren, zati dezimala (unitatearen azpimultiploak dituena, hau da, balio absolutua bat baino txikiagoa duen zenbaki frakzionario bati dagokiona). Bi zatien arteko muga non den zehazteko, hau da, unitateen digitua zein den adierazteko, zeinu bat erabili behar da. Zeinu horretatik ezkerredera dago zenbaki dezimaldunaren zati osoa, eta zeinu horretatik eskuinera, berriz, zati dezimala, hau da, zenbaki dezimaldunaren digitu dezimalak dituena. Nazioartean ez dago batasunik, bi tradizio baitaude: gure ingurunean —Europa kontinentalean—, koma da markatzaile dezimala, baina herrialde askotan —ingelesaren eremuko herrialdeetan eta haren eraginpekoetan—, puntua baliatzen da markatzaile dezimal gisa. Eta nazioarteko erakundeek biak onartzen dituzte.

**Euskaraz, koma da markatzaile dezimala**<sup>13</sup>, hau da, koma dezimala (eta ez puntu dezimala). Eta apostrofoa ere ez da erabili behar markatzaile dezimal gisa.

$$\text{(EGOKIA)} \quad \frac{7456}{1000} = 7,456; \pi = 3,141\ 592\ 6\dots; e = 2,718\ 281\ 8\dots$$

$$\text{(DESEGOKIA)} \quad \frac{7456}{1000} = 7.456; \pi = 3.141\ 592\ 6\dots; e = 2.718\ 281\ 8\dots$$

$$\text{(DESEGOKIA)} \quad \frac{7456}{1000} = 7'456; \pi = 3'141\ 592\ 6\dots; e = 2'718\ 281\ 8\dots$$

<sup>12</sup> Telefono-zenbakiak emateko, dena dela, aurrizkiak (nazioarteko kodea, herrialdearen kodea) blokeka bereizi ohi dira, eta zenbakiak binaka edo hiruak ere zatitu daitezke:

Telefonoa: +34 944 15 81 55 / +34 944 158 155

<sup>13</sup> Hala erabiltzen da Frantziako frantsesean eta Espainiako gaztelanian ere.



## OHARRA

Zenbaki dezimaldunen irakurketa formalean, lehenik zati osoa eta ondoren zati dezimala aipatzen dira (ikus zenbaki frakzionarioak 6. puntuan), bien artean *eta* hitza sartuta (zati osoa zero denean, aukerakoa da zati hori esatea edo ez esatea).

**24,5:** hogeita lau unitate eta bost hamarren

**0,27:** (zero unitate eta) hogeita zazpi ehunen

**0,043:** (zero unitate eta) berrogeita hiru milaren

Ohiko irakurketan, sinboloen segida irakurtzen da, eta *koma* hitza esaten da:

**24,5:** hogeita lau koma bost edo **hogeita lau eta erdi**<sup>14</sup>

**0,27:** zero koma hogeita zazpi edo zero koma bi zazpi

**0,043:** zero koma zero lau hiru edo zero koma zero berrogeita hiru

## OHARRAK

Zati osoa zero denean, 0 zifra idatzi behar da beti komaren aurretik.

(EGOKIA) 0,375

(DESEGOKIA) ,375

Zenbaki dezimaldunak idaztean, ez da tarterik utzi behar zati osoaren eta zati dezimalaren artean. Koma jarri behar da (markatzaile dezimala), baina zuriunerik ez, garbi uzteko zenbaki bakarra dela.

(EGOKIA) 34,25

(DESEGOKIA) 34, 25

Zenbaki-segidak edo zenbaki-zerrendak idazten direnean, ordea, koma batez bereizten dira zenbakiak bata bestetik, eta zuriune bat uzten da komaren ondoren. Adibidez:

Hona hemen neurketen emaitzak: 3, 5, 9, 14...

Zenbaki-segidan zenbaki dezimaldunak daudenean, zenbakiak modu argian bereizi eta banantzeko, komeni da zenbakien artean puntu eta koma jartzea, markatzaile dezimalaren koma eta zenbakiak bereizteko koma ez nahasteko.

(EGOKIA) 34,25; 7,34; 5,723...

(DESEGOKIA) 34,25, 7,34, 5,723...

<sup>14</sup> Hogeita lau eta erdi irakur daiteke, baina \*hogeita lau eta erdi euro ez, honela baizik: hogeitalau euro eta erdi (edo hogeita lau koma bost euro).



Zenbaki dezimaldunak neurri-unitatearekin batera erabiltzen direnean, *eta* edo *koma* hitza idatzi eta esan behar da zati osoaren eta zati dezimalaren artean.

(EGOKIA) 3,25 €: hiru euro **eta** hogeita bost (zentimo); hiru **koma** hogeita bost euro

(DESEGOKIA) 3,25 €: hiru euro hogeita bost (zentimo); hiru hogeita bost (euro)

(EGOKIA) 2,60 m: bi metro **eta** hirurogei (zentimetro); bi **koma** hirurogei metro

(DESEGOKIA) 2,60 m: bi metro hirurogei (zentimetro); bi hirurogei metro

#### 4 Zenbaki kardinalak

Zenbaki kardinalak multzo bateko elementu-kopurua adierazten dute. Matematikan, *zenbaki arrunt* edo *zenbaki natural* deritze. Zifraz idazten dira askotan, baina hitzak erabiliz ere idatz daitezke, zenbatzaileak erabiliz. 1994an eman zuen Euskaltzaindiak zenbaki kardinalak euskara batuan idazteko araua (7. araua. *Zenbakien idazkeraz*). Hona hemen, osatuta eta argibideak erantsita (ALDAERA izeneko zutabearen ageri direnak beste zutabeak bezain egokiak dira euskara batuan):

ZENBAKIA	ZENBATZAILE KARDINALA	ALDAERA
0	zero <sup>15</sup>	
1	bat	
2	bi <sup>16</sup>	
3	hiru	
4	lau	
5	bost	bortz
6	sei	
7	zazpi	
8	zortzi	
9	bederatzi	
10	hamar	
11	hamaika	
12	hamabi	
13	hamahiru	
14	hamalau	
15	hamabost	hamabortz
16	hamasei	

<sup>15</sup> Ikus *huts* izenari buruzko azalpena taularen ondorengo puntuetan.

<sup>16</sup> Ikus biga izenordeari buruzko azalpena taularen ondorengo puntuetan.



ZENBAKIA	ZENBATZAILE KARDINALA	ALDAERA
17	hamazazpi	
18	hemezortzi	hamazortzi
19	hemeretzi	
20	hoge	
21	hogeita bat	
22	hogeita bi	
23	hogeita hiru	
24	hogeita lau	
25	hogeita bost	hogeita bortz
26	hogeita sei	
27	hogeita zazpi	
28	hogeita zortzi	
29	hogeita bederatzi	
30	hogeita hamar	
31	hogeita hamaika	
32	hogeita hamabi	
33	hogeita hamahiru	
34	hogeita hamalau	
35	hogeita hamabost	hogeita hamabortz
36	hogeita hamasei	
37	hogeita hamazazpi	
38	hogeita hemezortzi	hogeita hamazortzi
39	hogeita hemeretzi	
40	berrogei	
41	berrogeita bat	
42	berrogeita bi	
43	berrogeita hiru	
44	berrogeita lau	
45	berrogeita bost	berrogeita bortz
46	berrogeita sei	
47	berrogeita zazpi	
48	berrogeita zortzi	
49	berrogeita bederatzi	
50	berrogeita hamar	



ZENBAKIA	ZENBATZAILE KARDINALA	ALDAERA
51	berrogeita hamaika	
52	berrogeita hamabi	
53	berrogeita hamahiru	
54	berrogeita hamalau	
55	berrogeita hamabost	berrogeita hamabortz
56	berrogeita hamasei	
57	berrogeita hamazazpi	
58	berrogeita hemezortzi	berrogeita hamazortzi
59	berrogeita hemeretzi	
60	hirurogei	hiruretan hogei
61	hirurogeita bat	hiruretan hogeita bat
62	hirurogeita bi	hiruretan hogeita bi
63	hirurogeita hiru	hiruretan hogeita hiru
64	hirurogeita lau	hiruretan hogeita lau
65	hirurogeita bost	hiruretan hogeita bortz
66	hirurogeita sei	hiruretan hogeita sei
67	hirurogeita zazpi	hiruretan hogeita zazpi
68	hirurogeita zortzi	hiruretan hogeita zortzi
69	hirurogeita bederatz	hiruretan hogeita bederatz
70	hirurogeita hamar	hiruretan hogeita hamar
71	hirurogeita hamaika	hiruretan hogeita hamaika
72	hirurogeita hamabi	hiruretan hogeita hamabi
73	hirurogeita hamahiru	hiruretan hogeita hamahiru
74	hirurogeita hamalau	hiruretan hogeita hamalau
75	hirurogeita hamabost hirurogeita hamabortz	hiruretan hogeita hamabortz
76	hirurogeita hamasei	hiruretan hogeita hamasei
77	hirurogeita hamazazpi	hiruretan hogeita hamazazpi
78	hirurogeita hemezortzi hirurogeita hamazortzi	hiruretan hogeita hemezortzi
79	hirurogeita hemeretzi	hiruretan hogeita hemeretzi
80	laurogei	lauretan hoge
81	laurogeita bat	lauretan hogeita bat
82	laurogeita bi	lauretan hogeita bi
83	laurogeita hiru	lauretan hogeita hiru



ZENBAKIA	ZENBATZAILE KARDINALA	ALDAERA
84	laurogeita lau	lauretan hogeita lau
85	laurogeita bost laurogeita bortz	lauretan hogeita bortz
86	laurogeita sei	lauretan hogeita sei
87	laurogeita zazpi	lauretan hogeita zazpi
88	laurogeita zortzi	lauretan hogeita zortzi
89	laurogeita bederatzi	lauretan hogeita bederatzi
90	laurogeita hamar	lauretan hogeita hamar
91	laurogeita hamaika	lauretan hogeita hamaika
92	laurogeita hamabi	lauretan hogeita hamabi
93	laurogeita hamahiru	lauretan hogeita hamahiru
94	laurogeita hamalau	lauretan hogeita hamalau
95	laurogeita hamabost laurogeita hamabortz	lauretan hogeita hamabortz
96	laurogeita hamasei	lauretan hogeita hamasei
97	laurogeita hamazazpi	lauretan hogeita hamazazpi
98	laurogeita hemezortzi laurogeita hamazortzi	lauretan hogeita hemezortzi
99	laurogeita hemeretzi	lauretan hogeita hemeretzi
100	ehun	
101	ehun eta bat	
102	ehun eta bi	
149	ehun eta berrogeita bederatzi	
200	berrehun	
300	hirurehun	
400	laurehun	
500	bostehun	bortzehun
600	seiehun	
700	zazpiehun	
800	zortziehun	
900	bederatziehun	
1000	mila	
1001	mila eta bat	
1100	mila eta ehun	
1200	mila eta berrehun	



ZENBAKIA	ZENBATZAILE KARDINALA	ALDAERA
1201	mila berrehun eta bat	
1984	mila bederatzehun eta laurogeita lau	mila bederatzehun eta lauretan hogeita lau
10 000	hamar mila	
13 425	hamahiru mila laurehun eta hogeita bost	hamahiru mila laurehun eta hogeita bortz
100 000	ehun mila	
147 589	ehun eta berrogeita zazpi mila bostehun eta laurogeita bederlatzi	ehun eta berrogeita zazpi mila bortzehun eta lauretan hogeita bederlatzi
1 000 000	milioi bat <sup>17</sup>	
1 200 000	milioi bat eta berrehun mila	
1 647 413	milioi bat seiehun eta berrogeita zazpi mila laurehun eta hamahiru	
2 700 000	bi milioi eta zazpiehun mila	
10 000 000	hamar milioi	
60 200 001	hirurogei milioi berrehun mila eta bat	
500 000 000	bostehun milioi	bortzehun milioi
500 321 207	bostehun milioi hirurehun eta hogeita bat mila berrehun eta zazpi	bortzehun milioi hirurehun eta hogeita bat mila berrehun eta zazpi
1 000 000 000	mila milioi / miliar bat	
1 000 000 000 000 = 10 <sup>12</sup>	bilioi bat / milioi bat milioi / hamar ber hamabi	
10 <sup>18</sup>	trilioi bat / milioi bat bilioi / hamar ber hemezortzi	
10 <sup>24</sup>	kuatrilioi bat / bilioi bat bilioi / hamar ber hogeita lau	

Hona hemen zenbakiak idaztean kontuan izan beharreko zenbait jakingarri:

- Testuinguru batzuetan, *huts* izena erabiltzen da zero zenbakiaren sinonimo gisa, hala nola partiden emaitzak adierazteko joko, kirol eta kidekoetan: **hiru eta huts amaitu da partida, hutsean amaitu da partida**. *Bat ere ez* erabiltzen da batzuetan zero adierazteko. Nolanahi ere,

<sup>17</sup> Tradizioan, erabili izan da *milioi* hitza ondoan *bat* izan gabe eta jarraian izen bat duela (**Lurra baino milioi eta berrogei mila aldiz handiagoa da Eguzkia. Nola milioi aldiz hertsatu eta behartu duen**), baina gaur egun ez da ohikoa. Alegia **milioi bat euro** da molde estandarra, eta ez **milioi euro**.

Izenordain gisa, ondoan izenik ez duela, mugatuan erabiltzen da milioi bat adierazteko:

**la bakoitzarentzat milioia ateratzen zuen = la bakoitzarentzat milioi bat ateratzen zuen.**



*huts* eta *bat ere ez* dira zenbatzaileak, eta ez dira erabili behar zenbaki dezimaldunetan, ezta neurriunitateekin batera edo eragiketa matematikoetan ere<sup>18</sup>.

(EGOKIA) 0,5: zero koma bost

(DESEGOKIA) 0,5: huts koma bost

(EGOKIA) 0 °C: zero gradu

(DESEGOKIA) 0 °C: huts gradu

(EGOKIA)  $5 \times 0 = 0$ : bost bider zero berdin zero

(DESEGOKIA)  $5 \times 0 = 0$ : bost bider huts berdin huts

- *Bi* izenaz gainera, *biga* ere erabiltzen da Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan izenordain gisa: *Ontzi bat, edo biga edo hiru. Bat dugunean, biga nahi ditugu; biga ditugunean, hiru. Biga etorri dira. Ezkonduz gero ez direla biga, baina bat. Baten orde biga. Haietatik biga.*

Zenbatzaile hutsa denean, berriz, ez da erabiltzen.

(EGOKIA) bi ikasle

(DESEGOKIA) biga ikasle

- *Hiru* eta *lau* zenbatzaileak salbuespenak dira, behinolako *hirur* eta *laur* izenen amaierako erre letra atxiki baitute *hirurehun* eta *laurehun* zenbatzaileek, baina haiek dira salbuespen bakarrak.

(EGOKIA) *hirurehun, laurehun, bostehun, seiehun, zazpiehun, zortziehun, bederatziehun*

(DESEGOKIA) *seirehun, zazpirehun, zortzirehun, bederatzirehun*

- *Bost* aldaera nagusiaz gainera, *bortz* aldaera ere baliatzen da Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako euskalki batzuetan, bai eta *hamabortz* eta *bortzehun* ere.
- *Hirurogei* eta *laurogei* aldaera nagusiez gainera, *hiruretan hoge*i eta *lauretan hoge*i aldaerak ere baliatzen dira ekialdeko euskalkietan.
- *Hoge*i zenbakitik *ehun* zenbakira bitartean, *eta* hitza *ta* bihurtzen da, eta zenbakiaren lehenengo osagaiari lotuta eta ondoko osagaitik bananduta idazten da.

(EGOKIA) *hogeita bost; hogeita hamabost; berrogeita lau; hirurogeita sei; laurogeita hamazazpi*

(DESEGOKIA) *hoge*i eta bost; *hoge*i eta hamabost; *berroge*i eta lau; *hiruroge*i eta sei; *lauroge*i eta hamazazpi

<sup>18</sup> *Huts* izena *zero* izenaren sinonimo gisa erabil daiteke, baina ezin da erabili izen batekin batera zenbatzaileak erabiltzen diren bezala; hau da, ezin da erabili *zenbat zer?* galderaren erantzun moduan. Adibidez, *zero akats*, *zero ilara*, *zero tolerantzia*... zuzenak dira, baina *\*huts akats*, *\*huts ilara*, *\*huts meridioa*, *\*huts tolerantzia*... ez dira zuzenak.



- *Ehun* zenbakitik aurrera, *eta* hitza osorik eta ehunekoen hitzetik bananduta idazten da<sup>19</sup>.
  - (EGOKIA) ehun **eta** bat; berrehun **eta** hogeita bost; seihun **eta** berrogei
  - (DESEGOKIA) ehun ta bat; ehunta bat; ehun da bat; ehunda bat; berrehun ta hogeita bost; seihunta berrogei
  
- *Mila* zenbakitik aurrera, *eta* kenduko da ondoren datozen ehunekoetan ere agertzen bada; bestela, jarri egin behar da:
  - (EGOKIA) mila **eta** hiru; mila **eta** hamaika; mila **eta** berrogeita sei; mila **eta** laurogeita hamabi
  - (DESEGOKIA) mila hiru; milata hamaika; mila berrogeita sei; milata laurogeita hamabi
  - (EGOKIA) mila **eta** ehun; mila **eta** berrehun; mila **eta** seihun; mila **eta** bederatziehun; bost mila **eta** berrogei; bi mila **eta** hogeita bost
  - (DESEGOKIA) mila ehun; mila berrehun; mila seihun; mila bederatziehun; bost mila berrogei; bi mila hogeita bost
  - (EGOKIA) **mila ehun** eta zazpi; **mila hirurehun** eta hogeita bost; **mila bederatziehun** eta laurogeita hamabi
  - (DESEGOKIA) mila eta ehun eta zazpi; mila eta hirurehun eta hogeita bost; mila eta bederatziehun eta laurogeita hamabi
  
- Zenbakia letraz idazten denean, ez da komarrik idazten, nahiz eta oso zenbaki luzea izan eta, horrenbestez, etenak egin ahoz gora irakurtzean edo esatean.
  - (EGOKIA) 206 795 843 237: berrehun eta sei mila zazpiehun eta laurogeita hamabost milioi zortziehun eta berrogeita hiru mila berrehun eta hogeita zazpi
  - (DESEGOKIA) 206 795 843 237: berrehun eta sei mila zazpiehun eta laurogeita hamabost milioi, zortziehun eta berrogeita hiru mila berrehun eta hogeita zazpi

#### 4.1 Zenbaki handiak adieraztea: *bilioi* hitzaren auzia; eskala luzea eta eskala laburra

Zenbakizko bi sistema nagusi erabiltzen dira gaur egun munduan zenbaki handiak izendatzeko. Bateriaezinak dira bi sistemok, eta, hori kontuan hartzen ez bada, nahaste larriak gertatzen dira sistemetako bat erabiltzen duen hizkuntza baten testua beste sistema erabiltzen duen beste hizkuntza batera pasatzean.

Bi sistema horiei *eskala luzea* eta *eskala laburra* deritze. Eskala luzearen oinarria milioikoa da, eta eskala laburraren oinarria milakoa da.

Eskala luzean, hau da bilioi baten esanahia: milioi bat milioi ( $10^{12}$ ); *bilioi europarra* esan ohi zaio.

<sup>19</sup> *Ehun eta bat* zenbakian (eta gisakoetan), hau da, *eta* hitzaren aurretik *-ehun* amaiera duen hitz bat dagoenean, ez da nahitaezkoa *eta* hitza oso-osorik ahoskatzea; mintzairen arabera, [ta] edo [da] gisara ahoska daiteke (ikus 32. oin-oharra).



Eskala laburrean, hau da bilioi baten esanahia: mila milioi, miliar bat (bilioia =  $10^9$ ); *bilioi amerikarra* esan ohi zaio.

Beraz, eskala luzean miliar bat dena bilioi bat da eskala laburrean.

Europa kontinentalean (Sobietar Batasunaren parte izan ziren edo haren eraginpeko lurraldeetan izan ezik), eskala luzea erabiltzen da. Eskala laburra batez ere herrialde anglofonoetan erabiltzen da. **Euskaraz, eskala luzea erabiltzen da**, gaztelaniaz eta frantsesez bezala.

Hau da bi eskalen arteko zenbakizko balioen eta dagozkien izenen baliokidetzeta-taula:

BALIOA	BALIOA	ESKALA LUZEA	ESKALA LABURRA
$10^0 =$	1	bat	bat
$10^3 =$	1 000	mila	mila
$10^6 =$	1 000 000	milioi bat	milioi bat
$10^9 =$	1 000 000 000	mila milioi / miliar bat	bilioi bat
$10^{12} =$	1 000 000 000 000	bilioi bat	trilioi bat
$10^{15} =$	1 000 000 000 000 000	mila bilioi	kuatrilioi bat
$10^{18} =$	1 000 000 000 000 000 000	trilioi bat	kintilioi bat
$10^{21} =$	1 000 000 000 000 000 000 000	mila trilioi	sestilioi bat

#### OHARRA

Kimikan, kontzentrazioa adierazteko, **ppb** unitatea erabiltzen da, besteak beste. Unitate horrek *parts per billion* adierazten du, eta bilioi amerikarra du erreferentzia, hots,  $10^9$  balio duena (mila milioiko parte edo miliarreko parte).

## 4.2 Zenbaki positiboak eta zenbaki negatiboak

Zenbaki kardinaletatik abiatuz definitzen dira zenbaki osoak, eta, aurretik + edo – zeinua gehituta, *zenbaki positiboak* (zeinurik ez badute, zenbaki positibotzat hartzen dira) edo *zenbaki negatiboak* lortzen dira. Hauek dira zenbaki osoak:

...-6, -5, -4, -3, -2, -1, 0, 1, 2, 3, 4, 5, 6...

+ eta – zeinuak zenbakiaren aurrean jartzen dira, zeinuaren eta zenbakiaren artean zuriunerik utzi gabe.

-15, +35

Zeinu positiboa *plus* irakurtzen da. Zenbaki positiboak honela irakurtzen dira:

+35: plus hogeita hamabost; +7: plus zazpi

Zeinu negatiboa *minus* irakurtzen da. Zenbaki negatiboak honela irakurtzen dira:

-15: minus hamabost; -6: minus sei



## OHARRA

Testu zainduetan, ez da nahastu behar marratxoa [-] (minus zeinua baino laburragoa da) edo marra [—] (minus zeinua baino luzeagoa da) minus zeinuarekin [-]. Minus eta plus zeinuak zabalera berekoak dira.

(EGOKIA)      -4 eta +4

(DESEGOKIA)   -4 eta +4; -4 eta +4

Minus eta plus zeinuak kenketan eta batuketan erabiltzen diren berak dira, baina *gehi* [+] eta *ken* [-] izendatzen dira eragiketa matematikoa adierazten dutenean.

## 5 Zenbaki ordinalak

Zenbaki ordinalak elementu jakin batek klase bereko elementuen serie batean edo hierarkia batean duen hurrenkera edo tokia seinalatzen dute. Zenbatzaile ordinalak adjektibo gisa jokatzeko dute, izen bat kalifikatzen baitute, eta izenaren aurrean idazten dira: *seigarren liburua hartu du*. Izenordain ere izan daitezke: *seigarrena hartu du*.

Oro har, ordinalak eratzeko, *-garren* atzizkia atxikitzen zaio zenbatzaile kardinalari. Zenbakia zifraz idazten denean, ez da *-garren* atzizkia idazten. Haren ordean, puntu bat atxikitzen zaio zenbakiaren azken zifrari (eskuineko zifrari).

(EGOKIA)      *bigarren* edo *2.*; *hirugarrena* edo *3.a*; *IV.a*

(DESEGOKIA)   *bi.* edo *2garren*; *hiru.a* edo *3garrena*; *IVgarrena*

## OHARRA

Matematikan, *n* letra sinbolo gisa erabiltzen da (etzanez idatzia) zenbaki natural bat adierazten duen kopuru aldakor bat adierazteko. Letra horren izena *ene* denez, hortik eratorri da *enegarren* hitza, segida batean zehaztu gabeko posizio bat adierazteko, eta, oro har, zehaztu gabeko kopuru handi bat adierazteko.

ORDINALA ZIFRAZ	ZENBATZAILE ORDINALA	ALDAERA
0.	zerogarren	
1.	lehen/lehenengo lehenbiziko/lehendabiziko <sup>20</sup>	
2.	bigarren	bigarrenengo
3.	hirugarren	hirugarrenengo
4.	laugarren	laugarrenengo

<sup>20</sup> Modu hauek ere baditu euskarak *lehen* ordinala adierazteko: *aurren*, *aurreneko*, *aurrenengo*, *estreinako*.



<b>ORDINALA ZIFRAZ</b>	<b>ZENBATZAILE ORDINALA</b>	<b>ALDAERA</b>
5.	bosgarren	bosgarrenge; borzgarren
6.	seigarren	seigarrenge
7.	zazpigarren	zazpigarrenge
8.	zortzigarren	zortzigarrenge
9.	bederatzigarren	bederatzigarrenge
10.	hamargarren	hamargarrenge <sup>21</sup>
11.	hamaikagarren	
12.	hamabigarren	
13.	hamahirugarren	
14.	hamalauzarren	
15.	hamabosgarren	hamaborzgarren
16.	hamaseigarren	
17.	hamazazpigarren	
18.	hemezortzigarren	hamazortzigarren
19.	hemeretzigarren	
20.	hogeigarren	
21.	hogeita batgarren	
22.	hogeita bigarren	
25.	hogeita bosgarren	hogeita borzgarren
30.	hogeita hamargarren	
31.	hogeita hamaikagarren	
32.	hogeita hamabigarren	
40.	berrogeigarren	
41.	berrogeita batgarren	
50.	berrogeita hamargarren	
60.	hirurogeigarren	hiruretan hogeigarren
70.	hirurogeita hamargarren	hiruretan hogeita hamargarren
80.	laurogeigarren	lauretan hogeigarren
90.	laurogeita hamargarren	lauretan hogeita hamargarren
100.	ehungarren	
101.	ehun eta batgarren	

<sup>21</sup> Tradizioan ageri dira era honetako ordinal-aldarak hamarretik gorako zenbakiekin (hamaikagarrenge, hamabigarrenge... hogeigarrenge), baina gaur egun ez dira erabiltzen.



ORDINALA ZIFRAZ	ZENBATZAILE ORDINALA	ALDAERA
102.	ehun eta bigarren	
1000.	milagarren	
1001.	mila eta batgarren	
1002.	mila eta bigarren	
10 000.	hamar milagarren	
100 000.	ehun milagarren	
1 000 000.	milioigarren	
2 000 000.	bi milioigarren	

*Lehenbiziko* formaz gainera, *lehenbizi* ere erabili da adjektibo gisa izen bat kalifikatzeko (*lehenbizi igandea*), baina ez da ohikoa, eta, beraz, ez da gomendatzekoa.

*Lehen*, *lehenengo*, *lehenbiziko*, *lehendabiziko* edo *aurren*, *aurreneko*, *aurrenengo* zifraz idazten direnean, gainerako ordinaleri bezala jarri behar zaie puntua, nahiz eta *-garren* ez esan.

(EGOKIA) 1. solairua

(DESEGOKIA) Igo solairua, Ingo solairua, 1.ngo solairua, 1.go solairua, 1.ko solairua

21., 41., 61. eta 81. ordinaletarako, *batgarren* da forma onartu bakarra (*hogeita batgarren egunean*, *berrogeita batgarren kapitulua*). Ez da idatzi behar *\*bakarren*.

(EGOKIA) hogeita batgarren, berrogeita batgarren...

(DESEGOKIA) hogeita bakarren, berrogeita bakarren...

(DESEGOKIA) hogeita lehen, berrogeita lehenengo, hirurogeita lehenbiziko...

(EGOKIA) lehen lana, lehenengo lana, lehenbiziko lana, lehendabiziko lana, aurren lana, aurreneko lana, aurrenengo lana, estreinako lana

(DESEGOKIA) batgarren lana

Zehazki, hogeiren multiplo diren kardinalen hurrengo kardinalari dagokion ordinala adierazteko erabiltzen da *batgarren* forma.

101.: ehun eta batgarren; 121.: ehun eta hogeita batgarren; 201.: berrehun eta batgarren; 1001.: mila eta batgarren; 1 000 001.: milioi bat eta batgarren

#### OHARRA

Urteak adierazteko, dena dela, *batgarren* bezala erabil daiteke *lehenengo* ere.

Mila bederatzehun eta batgarren urtean

Mila bederatzehun eta lehenengo urtean



*Bosgarren* da forma estandarra, eta *borzgarren* aldaera ere onartua dago. Ez da idatzi behar *\*bostkarren*, ezta *\*boskarren*, *\*bostgarren* edo *\*bortzgarren* ere.

*-garren* atzizkiaren aldaera gisa, *-garrenengo* eta *-garreneko* erabiltzen dira euskalki batzuetan: *bigarrenengo*, *hirugarrenengo...*; *bigarreneko*, *laugarreneko...*

Ordinal bat baino gehiago elkarren ondoan gertatzen direnean, aukerakoa da bakoitzean *-garren* atzizkia jartzea edo azkenean bakarrik jartzea.

(EGOKIA) XIX., XX. eta XXI. mendeetan; XIX, XX eta XXI. mendeetan

Bi elementu bakarrik direnean, biei jarri ohi zaie puntua, gainerako koordinazioetan bezala:

2. eta 3. ataletan.

Esan ere, hala esaten da: *bigarren eta hirugarren ataletan* eta ez *bi eta hirugarren ataletan*. Hiru elementu edo gehiago daudenean erabiltzen da gehienbat elipsia:

*bi, lau, zazpi eta zortzigarren ataletan*

Baldin eta, bitarte bat adierazi nahi denean, elkarrekin harremana duten bi zenbaki ordinal lotzearren marratxoa erabiltzen bada, bi aukera daude: ordinalen puntua marratxoaren alde banatako bi ordinaletan jartzea edo azken ordinalean bakarrik jartzea.

XII.-XVII. mendeetan / XII-XVII. mendeetan

14.-27. orrialdeak / 14-27. orrialdeak

Hurrenkera bati amaiera ematen dionari *azken*, *azkenengo*, *azkeneko*, *atzen*, *atzeneko*, *atzenengo*, *hondar*, *hondarreko* edo *akabuko* deritzo, baina horiek ez dira zenbaki ordinalak, ez baitagozkio zenbaki jakin bati.

## 6 Zenbaki frakzionarioak

Zenbaki frakzionarioak bi zenbakiren zatiketaz osatzen direnak dira. Hala, *a* zenbakia *b* zenbakiaz zatituz sortzen da *a/b* zenbaki frakzionarioa; *a* zenbakiari *zenbakitzaile* deritzo eta *b* zenbakiari *izendatzaile*. Izendatzaileak (*b*) adierazten du zenbat parte berdinek osatzen duten unitatea, eta zenbakitzaileak (*a*) adierazten du parte horietako zenbat hartzen diren. Zenbaki frakzionarioak zenbaki dezimaldun gisa ere adieraz daitezke ( $1/2 = 0,5$ ;  $3/4 = 0,75$ ;  $5/4 = 1,25$ ).

Zenbakitzailea *bat* zenbakia denean (*a* = 1 denean) eratzten diren zenbakiak izendatzeko, *-(r)en* eransten zaio zenbaki kardinalari, baina kontuan izanda 2, 3 eta 4 zenbakiek izen irregularra dutela.

*Txapelketaren azken final-zortzirena jokatu da gaur Azpeitian.*

*Udal-aurrekontuaren seirena da kopuru hori.*

*Altxorraren hamarrena nahi dut, baldin eta aurkitzen baduzu.*

*Mikrometroa milimetroaren milarena da.*

*Ekonomiaren hazkundera iragarri baino hamarren bat handiagoa izan da.*

*Munduko baso-eremu osoaren zazpiren bat Amazonas ibaiaren arroan dago.*



ZENBAKIA	IZENA	IRAKURBIDEA / IRAKURBIDE TEKNIKOA
1/2	erdi <sup>22</sup>	erdi bat / bat zati bi
1/3	heren <sup>23</sup>	heren bat / bat zati hiru
1/4	laurden <sup>24</sup>	laurden bat / bat zati lau
1/5	bosten	bosten bat / bat zati bost
1/6	seiren	seiren bat / bat zati sei
1/7	zazpiren	zazpiren bat / bat zati zazpi
1/8	zortziren	zortziren bat / bat zati zortzi
1/9	bederatziren	bederatziren bat / bat zati bederatz
1/10	hamarren	hamarren bat / bat zati hamar
1/11	hamaikaren	hamaikaren bat / bat zati hamaika
1/12	hamabiren	hamabiren bat / bat zati hamabi
1/20	hogeiren	hogeiren bat / bat zati hogei
1/21	hogeita baten	hogeita baten bat / bat zati hogeita bat
1/30	hogeita hamarren	hogeita hamarren bat / bat zati hogeita hamar
1/100	ehunen <sup>25</sup>	ehunen bat / bat zati ehun
1/1000	milaren	milaren bat / bat zati mila
1/10 000	hamar milaren	hamar milaren bat / bat zati hamar mila
1/100 000	ehun milaren	ehun milaren bat / bat zati ehun mila
1/1 000 000	milioiren	milioiren bat / bat zati milioi bat

Zenbakitzailea *bat* zenbakia ez denean ( $a \neq 1$  denean), badira bi modu zenbaki frakzionarioak idazteko:

- Izendatzailea zenbaki txikia denean (hamar edo txikiagoa), lehenik zenbakitzailea idazten da kardinal moduan eta ondoren izendatzailea idazten da *-(r)en* erantsita.

2/3: bi heren

3/4: hiru laurden

7/8: zazpi zortziren

8/10: zortzi hamarren

3 000 000/4: hiru milioi laurden

Bost segundo eta hiru hamarren

<sup>22</sup> *biren* ez da erabiltzen;  $3/2 =$  hiru erdi (hiru \*biren).

<sup>23</sup> *hiruren* ez da erabiltzen;  $5/3 =$  bost heren (bost \*hiruren).

<sup>24</sup> *laurden* ez da erabiltzen;  $7/4 =$  zazpi laurden (zazpi \*laurden).

<sup>25</sup> Diru-unitate baten ehunenari *zentimo* deritzo. Adibidez, euroaren ehunena euro-zentimo bat da.



## OHARRA

Izendatzailea milioi bat denean, *milioi* izena erabiltzen da, ondoren *bat* erantsi gabe, eta izen-izen erako hitz-elkarte arrunta eratzen da (*ordu(-)laurden*, *final(-)laurden* hitzetan bezala).

(EGOKIA)	milioi(-)erdi bat	(DESEGOKIA)	milioi bat erdi
(EGOKIA)	milioi(-)heren bat	(DESEGOKIA)	milioi bat heren
(EGOKIA)	milioi(-)laurden bat	(DESEGOKIA)	milioi bat laurden
(EGOKIA)	milioi(-)bosten bat	(DESEGOKIA)	milioi bat bosten

Berdin jokatzen da izendatzailea hamar baino handiagoa izan arren hitz bakarrekoa denean:

5/20: bost hogeiren; 7/60: zazpi hirurogeiren

2/100: bi ehunen; 6/1000: sei milaren

9/1 000 000: bederatzi milioiren

Bi segundo eta hirurogei ehunen

- Izendatzailea hitz bat baino gehiagokoa denean, zenbaki frakzionarioa zifraz idatzi ohi da (ez da ohikoa zenbaki frakzionario konplexua zenbatzailez idaztea) eta irakurbide teknikoa erabiltzen da: zenbakitzailea esaten da lehenik, kardinal modura; ondoren, *zati* hitza gehitzen da; eta, azkenik, izendatzailea esaten da kardinal modura. Eta irakurbide tekniko hori idatzi egin daiteke, ohikoa ez bada ere<sup>26</sup>.

(EGOKIA)	$a/b$	a zati b
(DESEGOKIA)	$a/b$	a b-ren
(EGOKIA)	$3/4$	hiru zati lau (edo hiru laurden)
(EGOKIA)	$13/47$	hamahiru zati berrogeita zazpi
(EGOKIA)	$2\ 000\ 000/102$	bi milioi zati ehun eta bi

Zenbaki frakzionarioak idazteko eta irakurtzeko modu estandarrak horiek badira ere, badira beste modu batzuk zenbaki frakzionarioaren ideia adierazteko. Adibidez,  $7/10$  zenbakia adierazteko *zazpi hamarren* da ohiko moldea, baina honela ere adieraz daiteke: *hamarretik zazpi*, *hamarretatik zazpi*, *hamarretarik zazpi*, *hamarreko zazpi*. Eta  $2/5$  zenbakia, adibidez, *bi bosten* ohiko moldeaz gainera, honela ere adieraz daiteke: *bostetik bi*, *bostetatik bi*, *bostetarik bi*, *bosteko bi*.

<sup>26</sup> Irakurbide teknikoa egokiagoa da letrak edo zenbakiak eta letrak nahasian daudenean, adierazpen sinbolikoetan gertatu ohi den moduan:  $3/b$ ,  $x/7$  eta  $a/x$  adibidez, *hiru zati be*, *ixa zati zazpi* eta *a zati ixa* irakurri ohi dira, eta ez *hiru beren*, *ixa zazpiren* eta *a ixaren*, hurrenez hurren.



## 7 Ehunekoak

Ehunekoa edo portzentajea modu alternatibo bat da izendatzailea 100 zenbakia duen zenbaki frakzionarioa adierazteko. % nazioarteko sinboloaren bidez adierazten da, eta 0,01en balio-kidea da. Adibidez, % 25en balio-kidea 0,25 da ( $\% 25 = 25 \cdot 0,01 = 0,25$ ), hau da, laurden bat ( $25/100 = 1/4$ ).

### OHARRA

Berez, mota bereko bi magnituderen arteko zatiketaren emaitza diren unitate adimensionalak dira portzentajeak eta kidekoak. Neurtutako balio baten ( $x$ ) eta magnitude bereko erreferentziaren ( $A$ ) arteko arrazoia dira ( $x/A$ ), baina zenbaki jakin batez biderkatua. Biderkatzeko gehien erabiltzen direnak 100, 1000 eta 1 000 000 dira.

Biderkatzeko zenbakia 100 denean, **ehunekoa** lortzen da:

$$(x/A) \cdot 100: \% \text{ (ehuneko hainbeste)}$$

Biderkatzeko zenbakia 1000 denean, **milakoa** lortzen da:

$$(x/A) \cdot 1000: \text{\textcircled{0}} \text{ (milako hainbeste)}$$

Biderkatzeko zenbakia 1 000 000 denean, **milioikoa** edo **milioiko parte**a lortzen da:

$$(x/A) \cdot 1\,000\,000: \text{ppm (milioiko hainbeste)}$$

### 7.1 Ehunekoaren idazkera eta irakurbidea

Honela idazten dira ehunekoak euskaraz<sup>27</sup>: lehenik, ehunekoaren sinboloa (%) jartzen da; ondoren, zuriune bat uzten da, eta, azkenik, zenbakia idazten da zifraz. Hau da, irakurbidean erabiltzen den ordenari jarraituz:

% 25: ehuneko hogeita bost

% 3,2: ehuneko hiru koma bi

% 100: ehuneko ehun

Ez da *100eko* idatzi behar *ehuneko* hitzaren edo % sinboloaren ordez.

(EGOKIA)      % 7; ehuneko zazpi

(DESEGOKIA)    100eko 7; 100eko zazpi

<sup>27</sup> Nazioarteko arauak (ISO 80000) ezartzen dute lehenik zenbakizko balioa idatzi beharra eta ondoren unitatearen sinboloa (15 %). Hala ere, formalki arautu ez bazen ere, alderantzizko hurrenkeran idazteko gomendioa eman zuen Euskaltzaindiak 1991n *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I* obran, eta guztiz nagusia da hurrenkerak hori gaur egun. Espezialitateko testuetan, nolana ere, ez dago gaitzesterik ISO arauak betetzea.



## OHARRA

Irakurtzean, garrantzia du hurrenkerak, *ehuneko* hitza izenlagunaz gainera izena ere badelako<sup>28</sup>. Hala, hurrenkera-aldaketak zeharo aldatzen du esanahia:

$$\text{Bost ehuneko} = 5 \cdot 100 = 500$$

$$\text{Ehuneko bost} = \% 5 = 0,05$$

Sinboloaren eta zenbakiaren artean zuriunea utzi behar da.

(EGOKIA)      % 50

(DESEGOKIA)    %50

Gainerako sinboloetan bezala, ehunekoaren sinboloa eta zenbakizko balioa ez dira bi lerrotan banatuta idatzi behar. Hori ez gertatzeko, zuriune banaezina erabili behar da.

(EGOKIA)      Datorren urtean inbertsio berriak egingo dira, eta % 50 handituko da kapitala.

(DESEGOKIA)    Datorren urtean inbertsio berriak egingo dira, eta % 50 handituko da kapitala.

Testuan *ehuneko* idazten bada, haren ondoan idazten den zenbakia ere hitzez idatzi behar da, ez zifraz. Eta zenbakia letraz idazten bada, ez da erabili behar % sinboloa.

(EGOKIA)      Elkarrizketatuen ehuneko zazpik esan zuten ez zeudela ados.

(EGOKIA)      Elkarrizketatuen % 7k esan zuten ez zeudela ados.

(DESEGOKIA)    Elkarrizketatuen ehuneko 7k esan zuten ez zeudela ados.

(DESEGOKIA)    Elkarrizketatuen % zazpik esan zuten ez zeudela ados.

Ehunekoak koordinatzen direnean, % sinboloa errepikatzea komeni da, batez ere testu teknikoetan; testu orokorretan, onargarria da ez errepikatzea.

(EGOKIA)      Elkarrizketatuen % 12 eta % 15 bitartean hogeitertetik beherakoak ziren.

(ONARGARRIA TESTU OROKORRETAN)    Elkarrizketatuen % 12 eta 15 bitartean hogeitertetik beherakoak ziren.

<sup>28</sup> Matematikan, *ehuneko* hitzak badu beste adiera bat, ehun unitateren multzoa ere adierazten baitu, *hamarreko* hitzak hamar unitatez osatutakoa eta *milako* hitzak mila unitatez osatutakoa adierazten duten bezala. Horregatik, testuinguruak laguntzen ez badu, gerta liteke argi ez egotea zer adierazi nahi duen *ehuneko* hitzak, ehun unitate edo ehuneko erreferentzian dauden zenbait unitate. Anbiguitasun hori saihesteko, *ehunekobeste* edo *ehuneko hainbeste* proposatu eta erabili da zenbaitetan portzentajea adierazteko (eta, gisa berean, *milakobeste* edo *milako hainbeste* eta abar). Nolanahi ere, nekez gertatzen da anbiguitasun hori, testuinguruak ebatzi ohi baitu; horregatik, praktikan *ehuneko* erabiltzen da.



Marratxo baten bidez lotzen direnean, testu teknikoetan sinboloa errepikatzea komeni da; testu orokorretan, onargarria da ez errepikatzea.

(EGOKIA) % 2-% 5 bitartean igoko da KPIa datorren urtean.

(ONARGARRIA TESTU OROKORRETAN) % 2-5 bitartean igoko da KPIa datorren urtean.

#### OHARRA

Ehunekoak zifraz edo hitzez adieraz badaitezke ere, ohikoena zifraz adieraztea da. Zientziaren edo teknologiaren arloko testuetan hala idazten da sistematikoki. Testu orokorretan, ehuneko hamarrerenokoak letraz idazten dira batzuetan, baina hortik gorakoak zifraz idazten dira. Eta ehunekoa dezimalduna bada, zifraz idazten da beti.

## 7.2 Ehuneko negatiboak

Ehuneko negatiboetan, minus (–) zeinua % sinboloaren aurretik idatzi behar da, bien artean zuriunerik utzi gabe. Hurrenkera bera baliatu behar da hitzez idazten denean ere.

(EGOKIA) –% 4 [hitzez: minus ehuneko lau]

(DESEGOKIA) % –4 [hitzez: ehuneko minus lau]

## 8 Banatzaileak

Zenbatzaileek banaketa adierazteko hartzen duten forma dira zenbatzaile banatzaileak. Partiketa bat adierazten dute; hau da, *zenbat bakoitzari?* edo *zenbat aldi bakoitzean?*: erlazio bat da, zeinean entitate-multzo bat (parte banatua) kopuru jakin batean banatzen baita beste entitate-multzo batean, halako moldez non bigarren entitate-multzoko entitateetako bakoitzari lehen multzoko entitate-kopuru bera baitagokio. Zenbaki kardinalari *-na* atzizkia erantsiz sortzen dira. *Zenbana* galdetzaileari erantzuten diote.

Liburu bana erosi dute [bakoitzak bat erosi du]; bina opil jan dituzte [bakoitzak bi jan ditu].

Zazpina urte eman zituen bi lan horietan [bakoitzean zazpi urte]; ehuna euro ordaindu ziguten [bakoitzari ehun euro].

Mila bana euro eman zizkiguten azkenean, baina hasieran esan zuten bina mila euro ordainduko zizkigutela.

Oso aberatsa zen, eta seme-alabei bina milioi euro eman zizkien.



*Bat* zenbakiari dagokion banatzailea *bana* da (ez \**batna*). Gainerako guztiak erregularrak dira<sup>29</sup>.

KARDINALA	BANATZAILEA
1	bana
2	bina
3	hiruna
4	launa
5	bosna ( <i>borzna</i> ere bai)
6	seina
7	zazpina
8	zortzina
9	bederatzina
10	hamarna
11	hamaikana
20	hogeina
21	hogeita bana
100	ehuna
1000	mila bana
2000	bina mila
100 000	ehuna mila
200 000	berrehuna mila
1 000 000	milioi bana
2 000 000	bina milioi

#### OHARRA

Kirol-emaitzak adieraztean, emaitza *zero eta zero* denean, *husna* ere erabiltzen da.

Husna amaitu zen partida. Realak eta Athleticek husna egin dute. Hantxe lortu zuen Eibarrek bigarren itzuliko lehen puntua, husna berdinduta.

Banatzaileak hitzez idazten dira askotan, baina zifraz ere idatz daitezke.

Bi sindikatuek 3na ordezkari lortu dituzte.

Hiru enpresa horiek % 2na irabazi zuten burtsan.

Prezioak % 1,1na igo dira aisia eta kulturaren eta hotel, kafe eta jantokietan.

[% 1,1na = ehuneko bat koma bana]

<sup>29</sup> Iparraldeko eta Nafarroako euskalki batzuetan, zenbaki kardinala bokalez bukatzen denean, *-ra* atzizkia erabiltzen da; *bira*, *seira*, *zazpira*, *zortzira*, *bederatzira*, *hamaikara*... (baina *hiruna* eta *launa*, kardinalak *hirur* eta *laur* baitziren).



Azkoitiarrek tartea zabaldu bazuten ere, 21na berdindu zuten adunarrek.

Basaburuak eta Andra Marik 3,5na puntu lortu zituzten.

[% 3,5na = ehuneko hiru koma bosna/borzna]

Banatzaileari *-ka* atzizkia lotzen zaio multzoak nola sailkatuta dauden adierazteko. Adibidez, lau elementuz osatutako taldeak jarri direla adierazteko, *launaka*.

Hogeinaka erosten ditu sagarrak.

## 9 Biderkatzaileak

Zenbatzaile biderkatzaileek adierazten dute zenbat aldiz gertatzen den edo errepikatzen den zerbait; beraz, biderketa baten emaitza adierazten dute. Zenbatzaile kardinalari *koitz* atzizkia erantsiz lortzen dira biderkatzaileak<sup>30</sup>; *-kun* atzizkiak esanahi bera du, baina askoz gutxiago erabiltzen da (*bikun*, *hirukun* eta *laukun* dira erabilienak).

Uve bikoitza, jauzi hirukoitza, hiztegi laukoitza

Bi adiera dituzte adjektibo biderkatzaileek: ondoan duten izenaren erreferentea zenbat aldiz errepikatzen den, edo, bestalde, dena delako izen horren erreferenteak zenbat elementu edo unitate dituen. Hala, adibidez, *bikoitza* edo *bikuna* bi halako dena da, baina halaber da bi osagai berdinez, hau da, mota bereko bi gauzaz osatua dagoena. Azken adiera horretarako, *-ko* atzizkia ere erabiltzen da (*biko*, *hiruko*, *lauko*...).

KARDINALA	BIDERKATZAILEA
2	bikoitz
3	hirukoitz
4	laukoitz
5	boskoitz
6	seikoitz
7	zazpikoitz
8	zortzikoitz
9	bederatzikoitz
10	hamarkoitz
100	ehunkoitz

<sup>30</sup> *-koitz* atzizkiaren bidez eratzen diren biderkatzaileak adjektiboak dira batez ere, izen batekin batera erabiltzekoak, nahiz eta izen moduan ere erabiltzen diren orain (*2ren hirukoitza 6 da*; *lau biren bikoitza da*). Zerbait beste zerbait baino zenbat aldiz handiagoa den adierazteko, bada beste egitura bat zenbaki bati balio biderkatzailea emateko: *halako*.

Zuk halako bi irabazten du. Hiru halako irabazten du. Etxean ditudan halako bi ohe baneuzka.



*Bakoitz* eta *bakun* ez dira biderkatzaile gisa erabiltzen. Bestalde, *anitz* zenbatzaileari lotuta, *anizkoitz* eta *anizkun* adjektiboak eratzen dira.

Zenbatzaile biderkatzaileak ezin dira zifraz idatzi (honela ez: *2koitz*, *3koitz...*).

## 10 Zenbatzaile kolektiboak

Multzo bateko elementuen kopurua izendatzen duten zenbatzaileei deritze zenbatzaile kolektibo; hau da, izen multzokariak dira.

Zenbaki kardinalari *-kote* atzizkia erantsita eratzen dira. Matematikan, fisikan, kimikan eta musikan erabiltzen dira.

KARDINALA	KOLEKTIBOA
2	bikote
3	hirukote
4	laukote
5	boskote
6	seikote
7	zazpikote
8	zortzikote
9	bederatzikote
10	harmarkote
11	hamaikakote
12	hamabikote, dozena
...	...
20	hogeikote

Hogetik aurrera ez dira erabiltzen. Zenbatzaile kolektiboak ezin dira zifraz idatzi (honela ez: *2kote*, *3kote...*).

### 10.1 Zenbatzaile kolektiboak irudi geometrikoak izendatzeko

Irudi geometrikoak izendatzeko, irudiak duen angelu-kopurua eta aurpegi-kopurua kontuan hartuta sortzen dira irudien izenak.



Angelu-kopurua kontuan hartuta izendatzen dira irudi geometriko lauak, hau da, poligonoak.

IZENA	ANGELU-KOPURUA
triangelua edo hirukia	3 angelu
tetragonoa edo laukia	4 angelu
pentagonoa	5 angelu
hexagonoa	6 angelu
heptagonoa	7 angelu
oktagonoa	8 angelu
eneagonoa	9 angelu
dekagonoa	10 angelu
hendekagonoa	11 angelu
dodekagonoa	12 angelu
tridekagonoa	13 angelu
tetradekagonoa	14 angelu
pentadekagonoa	15 angelu
hexadekagonoa	16 angelu
heptadekagonoa	17 angelu
oktadekagonoa	18 angelu
eneadekagonoa	19 angelu
ikosagonoa	20 angelu

Aurpegi-kopurua kontuan hartuta izendatzen dira poliedroak.

IZENA	AURPEGI-KOPURUA
diedroa	2 aurpegi
triedroa	3 aurpegi
tetraedroa	4 aurpegi
pentaedroa	5 aurpegi
hexaedroa	6 aurpegi
heptaedroa	7 aurpegi
oktaedroa	8 aurpegi
eneaedroa	9 aurpegi
dekaedroa	10 aurpegi



hendekaedroa	11 aurpegi
dodekaedroa	12 aurpegi
tridekaedroa	13 aurpegi
tetradekaedroa	14 aurpegi
pentadekaedroa	15 aurpegi
hexadekaedroa	16 aurpegi
heptadekaedroa	17 aurpegi
oktadekaedroa	18 aurpegi
eneadekaedroa	19 aurpegi
ikosaedroa	20 aurpegi

### 11 -tar atzizkiaren erabilera zenbakiekin

Zenbaki kardinalei erantsita erabiltzen da *-tar* atzizkia adjektiboak sortzeko (*ehun* kardinalarekin *-dar* aldaera baliatzen da: *ehundar*). Batez ere, zenbaki-sistemak kalifikatzeko erabiltzen da.

sistema hamartarra, bitarra, konpas hirutarra, aritmetika bitarra, aleazio lautarra, sistema hamabitarra, gradu hirurogeitarra, gradu ehundarra.

Ez dira zifraz idazten (honela ez: *2tarra*, *10tarra*...).

### 12 Zenbakiei artikulua eta kasu-markak jartzean kontuan hartu beharrekoak

Zenbakiak bi modutara idatz daitezke: letrak erabiliz edo digituak erabiliz. Letraz idazten direnean, kasu-marka zuzenean lotzen zaio zenbatzaileari, beste edozein hitzi bezala.

batean, biko, bostentzat, seitik, zortzira, zazpia, hamarrek, bederatziri

Zifrari kasu-marka lotzeko, apostrofoa (*5'ean*) eta marratxoa (*5-ean*) erabili izan dira euskarazko testuetan garai batean, baina, kontuan izanik digituak eta letrak mota desberdinetako ikurrak direla eta bien artean nahasterik sortzeko aukerarik ez dagoela, tartean ezer sartu gabe idaztea arautu zen gerora, marratxorik eta apostroforik gabe<sup>31</sup>.

(EGOKIA)      1etik, 2ko, 5entzat, 6tik, 8ra, 7a, 10ek, 9ri

(DESEGOKIA) 1-etik, 2'ko, 5-entzat, 6'tik, 8-ra, 7'a, 10-ek, 9'ri

<sup>31</sup> 1970eko abenduaren 30ean, Idatzarauak Estudiatzeko Batzordea sortzea erabaki zuen Euskaltzaindiak, eta 1978ko maiatzaren 28an aurkeztu zituen batzorde horrek lehen txostena. Zenbakiei buruzkoa da txosten horretako 2. puntua, eta honela dio (*Eusker*a, 1971,1, 151. or.):

*Kardinalak*. Nahiz eta zenbakiaren ondoren atzizkiren bat etorri, zilegi izan bedi tartean ezertxo ere ez jartzea. Adibidez: 8an (zortzian), 5ean (bostean). Arrazoia: sinpletasuna eta premiarik eza.



Beraz, artikulua eta kasu-markak zenbakia adierazten duen sinboloari lotuta idazten dira —hau da, zifrari lotuta— bien artean ezer jarri gabe eta bien artean zuriunerik utzi gabe. Zenbatzailea bokalez edo kontsonantez bukatzen den hartu behar da kontuan, kontsonantez bukatzen bada -e- epentetikoa jarri behar delako.

25ean	hogeita bostean
17an	hamazazpian
12tik	hamabitik
100etik	ehunetik <sup>32</sup>

### 12.1 *Hamaika* (11) eta *mila* (1000)

*Hamaika* zenbatzailea -a letraz amaitzen da, eta  $a + a = a$  eta  $a + e = e$  juntura-legeak betetzen ditu. Adibidez, **hamaikan** eta **hamaiken** idazten den bezala, **11n** eta **11en** idatzi behar da.

(EGOKIA)	urriaren hamaikan	urriaren 11n
(DESEGOKIA)	urriaren hamaik <span>e</span> an	urriaren 11 <span>e</span> n
	urriaren hamaika <span>a</span> n	urriaren 11 <span>a</span> n
(EGOKIA)	31 lehengusu ditut, eta 31k etorriko dira ezkontzara. [mugatu plurala: hogeita hamaikak ( $a + a = a$ )]	
(DESEGOKIA)	31 lehengusu ditut, eta 31ak etorriko dira ezkontzara.	
(EGOKIA)	31 lehengusu ditut, eta 31ei bidali diet gonbidapena. [mugatu plurala: hogeita hamaik <span>e</span> i ( $a + e = e$ )]	
(EGOKIA)	111 ikasle dira, eta 111ek baietz esan dute. [mugatu plurala: ehun eta hamaik <span>e</span> k ( $a + e = e$ )]	
(EGOKIA)	130 ikasle dira, eta 111k baietz esan dute. [mugagabea: ehun eta hamaikak ( $a + a = a$ )]	
(DESEGOKIA)	130 ikasle dira, eta 111ek baietz esan dute.	

<sup>32</sup> *Ehun* hitzaren kasuan, *ehunetik* da forma estandarra, baina *ehundik* ere erabiltzen da, batez ere *ehundik gora / 100dik gora* esapidean. Gauza bera gertatzen da *-ehun* amaierako gainerako zenbakietan (*berrehun*, *hirurehun*...): *200etik* zein *200dik*, *300etik* zein *300dik*... (ikus 19. oin-oharra).



(EGOKIA) 111 ikasle dira, eta 111en izenak idatzi ditu arbelean.  
[mugatu plurala: ehun eta hamaiken ( $a + e = e$ )]

(EGOKIA) 130 ikasle dira, eta 111ren izenak idatzi ditu arbelean.  
[mugagabea: ehun eta hamaikaren]

(DESEGOKIA) 130 ikasle dira, eta 111en izenak idatzi ditu arbelean.

Beste hainbeste gertatzen da *mila* zenbatzailearekin (NOR mugatu plurala: 1000k [milak]; NOR mugagabea: 1000 [mila]. NOR<sub>K</sub> mugatu plurala: 1000ek [milek]; NOR mugagabea: 1000k [milak]. NOR<sub>I</sub> mugatu plurala: 1000ei [milei]; NOR<sub>I</sub> mugagabea: [milari]).

(EGOKIA) Badira adibide gehiago, baina lehen 1000k baino ez dira bistaratzen.  
[mugatu plurala: milak ( $a + a = a$ )]

(DESEGOKIA) Badira adibide gehiago, baina lehen 1000ak baino ez dira bistaratzen.

(EGOKIA) Enpresak dituen 1400 langileetatik, 400ek soldata ona dute eta gainerako 1000ek soldata eskasa.  
[mugatu plurala: milek ( $a + e = e$ )]

## 12.2 Hiru (3) eta lau (4)

*Hiru* eta *lau* zenbatzaileak, behinola, *hirur* eta *laur* izan ziren, eta pluralean amaierako erre hori atxikitzen dute kasu-markak hartzen dituztenean<sup>33</sup>. Honela:

hirurak, hirurek, hirurei, hiruretan, hiruretako, hiruretatik, hiruretara, hiruren, hirurekin, hirurentzat, hirurez

laurak, laurek, laurai, lauretan, lauretako, lauretatik, lauretara, lauren, laurekin, laurentzat, laurez

hirurak etorri dira; laurek erantzun dute; arratsaldeko hiruretan etorriko da; goizeko lauretan iritsi zen...

<sup>33</sup> Ez da ohikoa testuan *hiru* eta *lau* zenbakiak zifraz idaztea pluraleko kasu-markarekin. Beharrezkoa balitz, amaierako -r hori ez litzateke idatziko, baina irakurtzean esan beharko litzateke:

3ak [hirurak], 3ek [hirurek], 3ei [hirurei], 3etan [hiruretan]... / 4ak [laurak], 4ek [laurek], 4ei [laurai], 4etan [lauretan]...  
Eskuineko alderdiko 23 zinegotziek etxea eraikitzearen alde bozkatu zuten, eta ezkerreko alderdiko 4ek [laurek] aurka.



## OHARRA

*Hiru* (3) eta *lau* (4) zenbatzaileek amaieran errea atxikitzen dute pluralean izenordainak direnean, hau da, ondoan izenik ez dutenean. Adibidez:

Mireia lauretan etorriko da.

Atzo hiru ikasle etorri ziren, eta hirurak neskak ziren.

Izenak direnean, hau da, zenbakia bera adierazten dutenean, bokalez bukatzen den beste edozein izenek bezala hartzen dute kasu-marka, amaieran errea atxiki gabe pluralean. Adibidez:

(EGOKIA) Gure alabatxoak oso ondo marrazten ditu **hiruak** eta **zortziak** (*hiru* eta *zortzi* zenbakiak), baina trabatzen da oraindik **lauak** eta **bostak** (*lau* eta *bost* zenbakiak) idaztean.

(DESEGOKIA) Gure alabatxoak oso ondo marrazten ditu **hirurak** eta **zortziak**, baina trabatzen da oraindik **laurak** eta **bostak** idaztean.

Pluraletik kanpo, berriz, erregularrak dira:

hirua, hiruak, hiruari, hiruan, hiruko, hirutik, hirura...

3a, 3ak, 3ari, 3an, 3ko, 3tik, 3ra...

laua, lauak, lauari, lauan, lauko, lautik, laura...

4a, 4ak, 4ari, 4an, 4ko, 4tik, 4ra...

ekainaren hiruan, maiatzaren lauan, uztailaren hirutik, urriaren lautik...

ekainaren 3an, maiatzaren 4an, uztailaren 3tik, urriaren 4tik...

Ez da egokia bi zenbaki horien analogiaz errea jartzea beste zenbakiei:

(DESEGOKIA) **seirak**, **zazpirak**, **zortzirak**, **seiretan**, **zazpiretan**, **zortziretan**...

(DESEGOKIA) **6rak**, **7rak**, **8rak**, **6retan**, **7retan**, **8retan**...

(EGOKIA) **seiak**, **zazpiak**, **zortziak**, **seietan**, **zazpietan**, **zortzietan**...

(EGOKIA) **6ak**, **7ak**, **8ak**, **6etan**, **7etan**, **8etan**...

Salbuespen bakarrak *hiru* eta *lau* dira; hau da, *hamahiru* eta *hamalau*, *hogeita hiru* eta *hogeita lau* eta gainerakoek ez dute erre hori atxikitzen.

(EGOKIA) Muga hamahiruetatik hogeita lauetara itxita egongo da.

(DESEGOKIA) Muga hamahiruretatik hogeita lauretara itxita egongo da.

(EGOKIA) Berrogeita lau etorri dira informazio bila, eta berrogeita lauek eman dute izena ikastarorako.

(DESEGOKIA) Berrogeita lau etorri dira informazio bila, eta berrogeita laurek eman dute izena ikastarorako.



### 12.3 Artikulua eta kasu-markak zenbaki ordinaletan

Zenbaki ordinalak *-garren* atzizkiaren bidez eratzen dira, eta artikulua eta kasu-marka zuzenean lotzen zaizkio zenbatzaileari, beste edozein hitzi bezala, bien artean ezer jarri gabe eta bien artean zuriunerik utzi gabe. Ordinala kontsonantez bukatzen denez, kontsonantez bukatzen diren hitz arruntek bezala hartzen ditu kasu-markak.

hirugarrena, hirugarrenak, hirugarrenera, hirugarrenetik, hirugarreneko...

3.a, 3.ak, 3.era, 3.etik, 3.eko...

#### OHARRA

*Bat* zenbaki kardinalaren ordinala *lehen*, *lehenengo*, *lehenbiziko*, *lehendabiziko*, *aurren*, *aurreneko*, *aurrenengo* edo *estreinako* da; hau da, ez da erregularra, ez da *garren* atzizkiaren bidez eratzen. Zifraz idazten denean, gainerako ordinali bezala jarri behar zaie puntua, nahiz eta *-garren* ez esan, eta, kasu-markarik hartu behar badu, *-garren* atzizkia balu bezala jartzen zaio *-e-* epentetikoa (*lehen* eta *aurren* kontsonantez bukatzen dira, baina *lehenengo*, *lehenbiziko* eta *lehendabiziko* bokalez). Honela:

1.etik 167.era sartu dira lehen multzoan.

Eta nahi den moduan irakur daiteke:

lehenetik / lehenengotik / lehenbizikotik / lehendabizikotik / aurrenetik / aurrenekotik / aurrenengotik / estreinakotik ehun eta hirurogeita zazpigarrenera sartu dira lehen multzoan.

### 13 Zifrak ala hitzak? Zer erabili zenbakizko adierazpenak idaztean

Testuan zenbakiak aipatu behar direnean, erabaki behar da zer hautatu: letraz idatzi edo zifraz idatzi. Eta ez dago erantzun bakarra, faktore bat baino gehiago hartu behar baita kontuan nola jokatu erabakitzeko: zenbakia txikia edo handia den (hitz bakar batekin idazten den edo hitz gehiago behar diren), zenbaki zehatza edo gutxi gorabeherakoa den, zer testu-mota den (teknikoa den edo ez), zer entitate-mota adierazten duen eta zer testuingurutan erabiltzen den.

Zientziaren eta teknologiaren alorreko testuetan gehiago baliatzen dira zifrak gizarte-zientzietan baino edo idatzizko hedabide orokorretan eta literaturan baino, baina, hala eta guztiz ere, zifrek ez dituzte inoiz erabat ordeztzen hitzez idatzitako zenbakiak. Adibidez, matematikan bertan, zenbakiak letraz adierazi behar dira ia ezinbestean batzuetan: **bi** puntu, **hiru** funtzio, **lau** ekuazio... Eta testuinguru batzuetan, zenbakia ez da zehazki kuantifikaziorako erabiltzen (**esate baterako**, **urte batean**, **bata** eta **bestea**, **zero** akatseko **fabrikazioa**, **zero** ilara...). Bestalde, testuinguru teknikoak ez izanik ere, publizitatean eta ohar laburretan egokiagoa da zifra erabiltzea, laburragoa delako eta zehatzagoa gertatzen delako. Horregatik, karakterekopurua mugatzen duten euskarrietan eta ikusizkoak lehenetsuta duen testuinguruetan, hala nola blogen eta web-orrialdeen izenburuetan, ohikoa da zenbakiak zifraz idaztea.

5 aholku oporretan ondo ibiltzeko

3 egun falta dira zozketarako. Adi!

Badira, guztiarekin ere, joera nagusi batzuk, eta gomendio edo jarraibide logiko batzuk eman daitezke.



### 13.1 Noiz idatzi zenbakiak letraz

- Printzipioz, hitz bakar batez idazten diren zenbakiak letraz idatzi ohi dira testuinguru ezteknikoetan. Hau da, *zero, bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi, hamar, hamaika, hamabi, hamahiru, hamalau, hamabost, hamasei, hamazazpi, hemezortzi, hemeretzi, hoge, berrogei, hirurogei, laurogei, ehun, berrehun, hirurehun... mila eta milioi.*

Gurean, hamabost aldiz gertatu da matxura hori, eta hirutan luze jo du konponketak.

Iaz berrehun euro balio zuen sarrerak, eta aurten ia hirurehun.

- Bi hitzetan idatz daitezkeen milatik gorako zenbakiak (zenbaki biribilak) letraz idatzi ohi dira, baina baita zifraz ere.

Futbol-zelaian berrogei mila pertsona sartzen dira.

Futbol-zelaian 40 000 pertsona sartzen dira.

Antolatzaileen arabera, berrehun mila pertsona izan ziren manifestazioan.

Antolatzaileen arabera, 200 000 pertsona izan ziren manifestazioan.

#### OHARRA

*Mila* hitza eta zifrak ezin dira batera erabili zenbaki bat idazteko.

(EGOKIA)      berrehun mila

(EGOKIA)      200 000

(DESEGOKIA) 200 mila

#### OHARRA

Ez da komeni esaldi berean letraz idatzitako zenbakiak eta zifraz idatzitako zenbakiak nahastea. Horregatik, esaldi berean zenbaki sinpleak (letraz idazteko modukoak) eta zenbaki konplexuak daudenean, komeni da denak zifraz idaztea.

(EGOKIA)      Ospitalean 700 paziente, 115 erizain eta 34 mediku daude.

(DESEGOKIA) Ospitalean zazpiehun paziente, 115 erizain eta 34 mediku daude.

Dena dela, zenbaki sinplea *bat* denean, letraz idatzi ohi da, nahiz eta gainerakoak zifraz idatzi.

Anastasia Rubtsova errusiarra minutu **bat** eta **28** segundora iritsi zen.

Partidaren iraupena: oren **bat** eta **20** minutu.

Osoko zuzenketa **bat** eta **29** zuzenketa partzial aurkeztu dira.

Guztira 21 ikasle bilduko dira: Argentinako **17**, Uruguaiako **3** eta Txileko **bat**.

- *Milioi* hitzaren kasuan, bederatzi milioira bitartean direnean edo, handiagoak izan arren hitz bakar batez idazten diren zenbakiak direnean, letraz zein zifraz idazten dira (eta letraz



idatz daitezke gainerakoak zifraz idatzita egon arren); hamar edo gehiago direnean, berriz, zifraz idatzi ohi dira.

Gizarte-etxearen proiekturako **lau** milioi euro aurreikusi zituzten, eta urbanizaziorako **2,8** milioi euro gorde dituzte

Iaz **bi** milioi euroko dirulaguntza jaso zuen.

Gobernuak **15** milioi euroko inbertsioa aurreikusi du auzoak birgaitzeko.

Nondik aterako ditut nik **berrogei** milioi?

Beste hainbeste *miliar*, *bilioi*, *trilioi*... hitzekin.

Lau miliar ardi baino gehiago kontatu ditut.

Iaz mundu osoan 42 bilioi faktura elektronikoko trukatu ziren.

- Esapideetako zenbakiak letraz idazten dira beti, bai eta asko adierazteko eta ez kopuru zehatz bat adierazteko baliatzen diren zenbakiak ere.

Hola jarraituz gero, bost sufritu behar duk!

Hari bost axola.

Guztiok hamaika aldiz entzun dugun hitza.

Eta nahiago nuke, mila bider nahiago, uste hori ustel agertuko balitz.

- Zatikiak, testuinguru matematikotik kanpo, letraz idazten dira:

Bosnietarrek populazioaren bi bosten baino gehiago osatzen dute, serbietarrek heren bat baino gutxiago eta kroaziarrek bosten bat baino gutxiago.

Jaten dugunaren hiru laurdenek jatorri begetala izan beharko lukete.

- Karta-sortetako karta bakoitza izendatzeko erabiltzen diren zenbakiak letraz idazten dira beti.

Seiko urrea, zazpiko diamantea, lauko bastoia, bateko ezpata.

- Kantitate eta kopuru zehaztugabeak adierazteko *eta gehiago* esapidea erabiltzen denean, letraz idazten dira zenbakiak (*hogei eta gehiago* zein *hogeita gehiago*, *berrogei eta gehiago* zein *berrogeita gehiago*, *hirurogei eta gehiago* zein *hirurogeita gehiago* eta *laurogei eta gehiago* zein *laurogeita gehiago*).

Orduan, berrogei eta gehiago urte izanen zituen.

Ez dira alferrik ehun eta berrogeita gehiago urte pasatu!

Harreman ona genuen, eta hogeitaz eta gehiagorako urtean hutsik egin gabe atera ginen.

Duela hogeitaz eta gehiagorako mende bazen Ponto izeneko erresuma bat.

Osasuna, laurogeita hamar eta gehiagorako urtean, tantaka ez ezik txorro betean izan zuen.

Orixek hirurogeita gehiagorako urte zituen eta obra zabal bat, heldutasunean zegoen idazlea zen.



Halaber idazten dira letraz kantitate eta kopuru zehaztugabeak adierazteko erabiltzen diren *hogeitaka*, *berrogeitaka*, *hirurogeitaka*, *laurogeitaka*, *dozenaka*, *ehunka*, *milaka* eta *milioika* hitzak.

Hogeitaka urterekin joan, hirurogeitakarekin bueltatu.

Benetan leku basatia da hura; ehunka urte dituzten pagoak daude.

Dozenaka atxilotu ditu Poliziak.

### 13.2 Noiz idatzi zenbakiak zifraz

- Hogetik gorako zenbakiak, hitz bakar batean idazten ez badira, zifraz idazten dira. Oro har, bi hitzetik gora behar dituzten zenbakiak lehenago eta argiago irakurtzen eta ulertzen dira zifraz adieraziz gero.

Atzoko testetan, 22 positibo atzeman zituzten herrian.

Musika Eskolak 417 ikasle ditu ikasturte honetan.

Guztira, 1376 eskaera jaso dira Iruñerriko haur-eskoletarako.

#### OHARRA

Testu juridiko batzuetan eta kontratuetan eta txeketan, diru-kopuruak adierazteko, ohikoa da, nahasteak saihesteko, lehenik zifraz idaztea kopurua eta ondoren, parentesi artean, hitzez idaztea.

7345,20 € (zazpi mila hirurehun eta berrogeita bost euro eta hogeitazentimo)

- Zenbaki dezimaldunak, hau da, zati oso bat eta zati dezimal bat dutenak, zifraz idazten dira.

Enpresak 3,8 milioi euro galdu zituen iaz.

Udaltzaingoa egindako urte oso bakoitzeko 0,35 puntu emango dira.

- Neurri-unitateen sinboloekin batera erabiltzen diren zenbakiak zifraz idazten dira.

Temperatura 15 °C-tik ez zen jaitsi atzo.

Donibane Garazitik 20 km-ra.

Haurdunaldiaren amaieran hasieran baino 10 kg gehiago zituen.

#### OHARRA

Neurri-unitateen sinboloak erabiltzen direnean, zenbakiak ezin dira letraz idatzi.

(DESEGOKIA) Temperatura hamabost °C-tik ez zen jaitsi atzo.

(DESEGOKIA) Donibane Garazitik hogeitazentimo km-ra.

(DESEGOKIA) Haurdunaldiaren amaieran hasieran baino hamar kg gehiago zituen.



- Kodeen parte diren zenbakiak, hau da, kopuruak adierazten ez dituztenak, zifraz idazten dira beti. Adibidez, telefono-zenbakiak, nortasun-agirien zenbakiak, legetestuen zenbakiak, posta-kodeak, errepide-zenbakiak, ibilgailu-matrikulak eta kidekoak.

20170 Usurbil

NANa: 15355902X

3/2015 Legea

A-8 autobidea, A63 autobidea, BI-2617 eskualde-errepidea

Autoen matrikulak: 9203 MSW eta AP-649-RR

- Serie baten barnean elementu bat identifikatzen duten zenbaki ordinalak zifraz idazten dira, eta funtzio berarekin izenarekin aposizioan erabiltzen diren zenbaki kardinalak ere bai. Oro har, ordena edo hurrenkera garrantzitsua denean edo zenbakiak segida bateko elementu bati erreferentzia egiteko balio duenean, zifraz idazten da. Halakoak dira, adibidez, orrialde-zenbakiak, testuen barneko irudi eta laukien zenbakiak, kale, solairu eta gelen zenbakiak eta abar.

27. orrialdea, 7. irudia, 3. taula, 35. gela

2.3 aretoa, 5.15 irudia, 7.6 laukia

- Testuaren barneko ohar-deiak zifraz idazten dira.

Inesibo pluralak ere zenbatzaile gisa jokatzeko du zenbaitetan; hala, adibidez, *egunetan*, *asteetan* eta *urteetan* pluralek —edo *urtetan* mugagabeak<sup>15</sup>— ‘{egun ~ aste ~ urte} askoan’ adieraz dezakete.

<sup>15</sup> Askotan *urtetan* idatzia. Ikus OEH s. v. *urte*: “Pl. o formalmente indet”.

- Kiroletako emaitzak, denborak eta markak zifraz idazten dira.

Osasunak 2-0 irabazi zion Realari.

Altunak eta Martijak 10 eta 22 galdu zuten Elezkano II.aren eta Rezustaren kontra.

Urdinak 0-2 aitzinatu dira, baina horren ondotik huts anitz egin dituzte.

Usain Bolt-ek 9,58 segundoan utzi zuen marka 2009an.

- Helbideetan, ataria eta solairua zifraz idazten dira. Kale- eta bide-izenen parte diren zenbakiak ere zifraz idatz daitezke, *lehena* eta ordinalak izan ezik.

Urbietan kalea 3, 2. solairua

Azaroaren 11 karrika, Irailaren 23a plaza, Maiatzaren Lehena kalea

New Yorkeko Bosgarren Etorbidea

- Urtea adierazteko zenbakiak zifraz idazten dira.

Lurrikaririk handiena 2024an izan zen.

Nork irabazi zuen lehen saria 2019. urtean?

1980ko hamarkada zuen gogoan hori esan zuenean.



- Hileko egunak gehienetan zifraz idazten dira (letraz ere idatz daitezke), bai eta jai eta historiako gertakari baten izendapenaren parte direnean ere.

Martxoaren 8a

Irailaren 11ko atentatuak

Lisboako Apirilaren 25eko zubia

Lehenbiziko gutuna maiatzaren 5ean datatua dago.

1976ko martxoaren 3an Gasteizen izan ziren gertakariak gogoratzeko ekitaldia

Martxoaren 1ean hasiera emango zaio antxoaren arrantzaldiari Hego Euskal Herrian.

Santu Guztien Eguna azaroaren 1ean ospatzen da.

Donostiako Abuztuaren 31 kalearen lehengo izena Trinitate kalea zen.

#### OHARRA

Hileko lehenengo eguna adierazteko, *lehen* hitza ere maiz erabiltzen da.

Azaroaren lehenean, hilobiak urreliliz josiko dira.

Irailaren lehenean izan zen etxe-sartzea.

Maiatzaren Lehena kalean bizi da.

- Matematikaren, fisikaren eta kimikaren arloko formuletako zenbakiak zifraz idazten dira. Oro har, dokumentu teknikoetan agertzen diren zenbakiak zifraz idazten dira. Berdin jokatzeko da datu estatistikoak emateko zenbakietan, batez ere lauki eta grafikoetan agertzen direnean.

$$\pi = 3,14159; y = 7x; c = 299\,792\,458 \text{ m/s}; \text{H}_2\text{SO}_4$$

- Ehunekoa adierazten duen % sinboloa erabiltzen denean, haren ondoan dagoen zenbakia zifraz idatzi behar da, eta sinboloaren eta zenbakiaren artean zuriunea utzi.

(EGOKIA) Kontsumo-prezioen indizea % 20 igotzera ere iritsi zen.

(DESEGOKIA) Kontsumo-prezioen indizea % hogeigotzera ere iritsi zen.

Baldin eta % sinboloaren ordean *ehuneko* hitza idazten bada, zenbakia zifraz nahiz letraz idatz daiteke.

Ordainsari-igoera horrek eta aurretik onartutako ehuneko 2,5 eta 0,5eko igoerek guztira ehuneko 3,5eko igoera batzen dute.

Ehuneko hirurogeita hamarrek baino gehiagok badakite galesez.

Hala ere, testu teknikoetan idazkera sinbolikoa hobestekoa da.

Ordainsari-igoera horrek eta aurretik onartutako % 2,5 eta % 0,5eko igoerek guztira % 3,5eko igoera batzen dute.



- Testu-mailak adierazteko edo testuen hierarkia adierazteko zenbakiak zifraz idazten dira. Adibidez, aurkibideetan eta enumerazioetan.

## 5 Erabilera

### 5.1 Premiarik gabe, ez sortu laburdurarik

### 5.2 Beste erabilera-aholku batzuk: saihestu beharrekoak

#### 5.2.1 Laburdura bati esanahi bakarra esleitu behar zaio

#### 5.2.2 Esanahi bati laburdura bakarra esleitu behar zaio

- Zenbakiekin batera laburdurak erabiltzen direnean, zifraz idatzi behar dira zenbakiak.

(EGOKIA) 15 or.

(EGOKIA) hamabost orrialde

(DESEGOKIA) hamabost or.

(EGOKIA) 20 zm.

(EGOKIA) 20 zentimo

(DESEGOKIA) hogeiz zm.

### 13.3 Zenbakiak zifraz idatzita esaldiaren hasieran

Esaldi baten hasieran zifra bat ez idazteko gomendatu ohi da hizkuntza batzuetan eta estilo-liburu batzuetan, eta, hori ez gertatzeko, esaldia berrantolatzea edo zenbakia letraz idaztea gomendatu ohi da. Ulertu behar da, baina, hori estilo-erabaki bat dela. Alegia, ez da desegokia esaldia zifra batekin hastea, eta, testuinguru batzuetan, egokiagoa ere izan daiteke. Ez da esaldia behartu eta bihurritu behar zifra bat hasieran ez jartzeagatik.

125 000 pertsonak hartu dute parte bozketan.

2024an berdintasunerako ikastaroak egiteko laguntzak

2024an ere publikoa da bidea!

### 13.4 Noiz idatzi zenbakiak letraz eta zifraz

Zenbakiak edo zifraz edo letraz idazten dira, eta ez da onargarria idazkera hibridoa.

(EGOKIA) 207; berrehun eta zazpi

(DESEGOKIA) 200 eta zazpi

(EGOKIA) 150 000; ehun eta berrogeita hamar mila

(DESEGOKIA) 150 mila



*Erdi* hitza ezin da erabili zifraz idatzitako zenbakiekin (ikus salbuespena 14.1 puntuan, orduak adierazteari dagokionez).

- (EGOKIA) 17,5 milioi eurotik gora mikroelektronikaren eremuan prestakuntza sustatzeko
- (EGOKIA) Hamazazpi milioi eta erdi eurotik gora mikroelektronikaren eremuan prestakuntza sustatzeko
- (DESEGOKIA) 17 milioi eta erdi eurotik gora mikroelektronikaren eremuan prestakuntza sustatzeko

Salbuespena: 13.1 puntuan adierazi den moduan, *milioi, miliar, bilioi, trilioi...* hitzak zifrekin batera erabil daitezke zenbaki bat idazteko.

- (EGOKIA) 35 milioi dolar; 1,5 miliarreko urteko negozioa; 1,124 bilioi euroraino igo da zor publikoa.

## 14 Ordua adieraztea

1995ean argitaratu zuen Euskaltzaindiak *Orduak nola esan* araua (35. araua). Hartan zehazten dira orduak idazteko gomendioak eta irizpideak. Gehienbat, orduak adierazteko moldeak eta joskera zehazten ditu arauak, baina orduak zifraz emateko aholku batzuk ere ematen ditu. Hemen, orduak adierazteko nazioartean dauden ereduak deskribatuko dira, eta erabilera-ohar lagungarri batzuk emango 1995eko araua osatu eta zehazteko.

### 14.1 Ordua letraz edo zifraz idaztea

Literaturan eta, oro har, narrazio gisako testuetan, ohikoa da orduak letraz idaztea. Horretaz gainera, egunaren zer parte den —goiza, arratsaldea, gaua— zehazten denean, egokia da letraz idaztea.

Artean ilun zegoela ateratzen nintzen kolegiarantz, goizeko zazpiak eta bostean puntuan, egunero.

Zatoz nire apartamentura goiz batean zortziak eta laurdenetan.

Azkenean, erlojuak zortzi eta erdiak adierazi zituen.

Goizeko bost eta erdiak inguruan iritsi ziren.

Gutxi gorabeherako ordua idazten denean ere, ohikoa da letraz idaztea.

Gaur, seiak aldera etorriko da.

Ilun zen ordurako: hamaikak eta gehiago ziren.

Bai, hirurak inguruan atera da helikopteroa mendizaleen bila, eguzki betean.

Testu teknikoetan, administrazio publikoen testuetan edo merkataritzaren arloko testuetan eta, oro har, zehaztasuna eta laburtasuna behar duten testuetan, zifraz idazten dira orduak.



Egitarau, kartel eta gisakoetan, ez dago eragozpenik erdiko bidea hartzeko: egunaren parte letraz eta ordua zifraz idatzita.

Tutoretzak goizeko 8etatik gaueko 9ak arte.

Urtarrilaren 5ean arratsaldeko 5etan ailegatuko dira Errege Magoak Eibarrera.

Eguerdiko 12 eta erdiak aldera izango da bazkaria.

## 14.2 Orduaren notazioa: hamabi orduko sistema eta hogeita lau orduko sistema

Badira bi sistema edo eredu ordua adierazteko, hamabi ordukoa eta hogeita lau ordukoa. Ahozkoan, hamabi ordukoa da nagusi; idatzizkoan, berriz, hogeita lau ordukoa.

### OHARRA

Orduaren zatietarako, sistema hirurogeitarra baliatzen da. Ordua hirurogei minututan banatzen da (00tik 59ra) eta minutua ere hirurogei segundotan banatzen da (00tik 59ra). Segundoaren zatiak adierazteko, sistema hamartarra erabiltzen da.

- **Hamabi orduko sistema:** 12 orduko bi alditan banatzen du eguna, eta 1etik 12rako zenbakiak erabiltzen ditu. Eguna hasten den unea adierazteko, 12 zenbakia baliatzen da, eta zenbaki horrek berak adierazten du eguna amaitzen den unea. Adibidez, gauerdia izan denetik ordu-laurden bat igaro denean, **12:15** dira (**hamabiak eta hamabost / hamabiak eta laurden / hamabi orduak eta laurden / hamabi eta laurdenak / hamabi orenak eta laurden / hamabi oren eta laurdenak**). Kasu horretan, eta testuinguruak argitzen ez badu, beharrezkoa da egunaren zer parte den zehaztea<sup>34</sup>.

Hamabi orduko sisteman orduak eta minutuak bakarrik adierazten dira, ez segundoak, eta, askotan, letraz idazten da ordua, batez ere narrazioetan eta arrazoibidezko testuetan, ez hainbeste ohar gisako testu laburretan.

- **Hogeita lau orduko sistema:** eguneko orduak adierazteko, 00tik 24rako zenbakiak erabiltzen ditu. Eguna hasten den unea adierazteko, 00 zenbakia erabiltzen da, eta eguna amaitzen den unerako, 24 zenbakia. Sistema horretan, bi modutan adieraz daiteke gauerdia: 00:00:00 erabiltzen da egutegi-egun baten hasierako unea adierazteko, eta 24:00:00 erabil

<sup>34</sup> Ordua zifraz idazten denean, eguerdia baino lehen dela adierazteko, **a.m.** (latinezko *ante meridiem* esapidearen laburdura: 'eguerdia baino lehen') idazten da, eta eguerdiaren ondorengoa dela adierazteko, **p.m.** (latinezko *post meridiem* esapidearen laburdura: 'eguerdiaren ondoren'). Adibidez:

12:15 a.m. (gaueko hamabiak eta laurden)

12:15 p.m. (eguerdiko hamabiak eta laurden)

Absolutiboan bakarrik baliatzen da molde hori. Ageriko kasu-markekin ez dira erabiltzen laburdura horiek.

Ahozkoan eta testu teknikoetatik kanpo, ohikoa da hamabi orduko sistema erabiltzea, baina, **a.m.** eta **p.m.** laburduren ordean, egunaren parte zehazten da orduaren aurretik.

Goizeko bostak (5:00 a.m.)

Arratsaldeko zazpiak eta hamar (7:10 p.m.)

Gaueko hamabiak laurden gutxi (11:45 p.m.)



daiteke egutegi-egun baten amaierako unea adierazteko. Adibidez, urte bateko abuztuaren 31ko 24:00:00ak eta urte bereko irailaren 1eko 00:00:00ak ordu bera dira (24:00:01 ez da zuzena, ezin da erabili, egunak ez baitu irauten 24 ordu baino gehiago; hurrengo egunera pasatu behar da: 00:00:01). Eskuarki, ordu-tarte bat egun-aldaketa gabe ixteko erabiltzen da 24 zenbakia. Adibidez:

Igandean, hoteleko taberna 08:00etatik 24:00etara egongo da zabalik.

Hogeita lau orduko sistema erabiltzen denean, zifraz idazten da.

07:10

23:45

Hogeita lau orduko sistema da munduan erabiliena; sistema hori erabiltzen du ISO 8601 nazioarteko arauak<sup>35</sup>.

Arau horrek zehazten du ezen, ordua adierazteko, unitaterik handienetik txikienerako hurrenkera erabili behar dela ezkerretik eskuinerantz: orduak, minutuak eta segundoak. Orduak, minutuek zein segundoek bi digitu izan behar dituzte; beraz, balioa 10 baino txikiagoa bada, 0 jarri behar da aurretik. Eta orduen, minutuen eta segundoen artean bi puntu jarri behar dira<sup>36</sup>, eta zuriunerik ez.

07:05:15

23:48:09

Segundoaren zatikiak daudenean (dezimalak), koma batez bereizten dira.

23:48:09,6

#### OHARRAK

- Nahi izanez gero, segundoak ezaba daitezke (adibidez, 21:05:00 gabe, 21:05 bakarrik), baina orduak ezin dira ezabatu. Adibidez, ezinezkoa da ordua 65:40 izatea. Hori ez da 65 minutu eta 40 segundo. Honela behar luke: 01:05:40. Ordua bakarrik utz liteke, baina hurbilpen bat litzateke, orduaren iraupen osoa adieraziko bailuke, eta ez ordua puntuan: 01 eta 01:00 ez dira berdinak.
- 24 orduko sisteman, orduak zerotik hogeita laura doaz; beraz, ez da zehaztu behar ordua goizekoa, arratsaldekoa edo gauekoa den, ezta eguerdiaren aurretikoa edo ondorengoa den ere.

(EGOKIA) Ekitaldia 19:00etan hasiko da.

(DESEGOKIA) Ekitaldia arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

(EGOKIA) Ekitaldiaren hasiera-ordua: 19:00.

(DESEGOKIA) Ekitaldiaren hasiera-ordua: 19:00 p.m.

<sup>35</sup> ISO 8061 araua 1988tik dago indarrean, eta ordua eta data zifraz idazteko nazioarteko estandarra da.

<sup>36</sup> Arauak bi formatu onartzen ditu: oinarritzko formatuan ez da bereizlerik erabiltzen, eta formatu hedatuan bai, bi puntuak, baina arauak berak zehazten du oinarritzko formatua saihestu behar litzatekeela ohiko testuetan.



- Ordua adierazteko, ez dira erabili behar denboraren unitate fisikoak. Gainera, nahasgarria izan liteke:

10 h 30 min-an bukatu zuen lana.

Adibide horrek adierazten du 10 ordu eta 30 minutu behar izan zirela lana bukatzeko. Adierazi nahi bada zer ordutan bukatu zuen lana, honela behar du:

10:30ean bukatu zuen lana.

Testu teknikoetatik kanpo, dena dela, ordua bakarrik adierazten bada eta minutuak adierazten ez badira, **h** idatz daiteke ordua dela adierazteko. Adibidez:

Autobusaren irteera: 07 h

Molde estandarrean, dena dela, honela behar du:

Autobusaren irteera: 07:00

Orduak eta minutuak adierazten badira, ordea, haien artean bi puntu jarrita, alferrikako erredundantzia da **h** idaztea:

(EGOKIA)      Itsasgorak: 05:49 eta 18:07

(ERREDUNDANTEA)      Itsasgorak: 05:49 h eta 18:07 h

- Angelu lauaren unitate diren minutuaren eta segundoaren sinboloak (‘ eta ’, hurrenez hurren) ez dira nahasi behar denboraren unitate diren minutuaren eta segundoaren sinboloekin (**min** eta **s**, hurrenez hurren), eta ez dira erabili behar ordua adierazteko.

(EGOKIA)      11:23:46

(DESEGOKIA)      11:23’46”

(DESEGOKIA)      11 h 23 min 46 s (egokia iraupena adierazteko, baina desegokia ordurako)

- Koma (edo puntua) erabili da batzuetan orduak eta minutuak bereizteko, baina testu formaletan bi puntu erabili behar dira. Zenbakiak zifraz idazten direnean, koma erabiltzen da dezimalen parte non hasten den adierazteko (komatik eskuinera dauden zifrak dezimalak dira), eta minutuak ez dira dezimalak.

(EGOKIA)      11:30ean

(DESEGOKIA)      11,30ean

## 14.3 Orduak zifraz idaztea. Artikulua eta kasu-markak

### 14.3.1 Artikulurik eta markarik gabe

Tauletan, laukietan, ordutegi-zerrendetan eta kidekoetan, zifra hutsak jartzen dira ordua adierazteko, artikulurik eta kasu-markarik gabe.

Autobusaren irteera-orduak: 07:00, 07:30, 08:00, 09:00



### Eskolako ordutegia

Goizez/Goizetan: 09:00-13:00

Arratsaldez/Arratsaldeetan: 15:00-17:30

Irakurtzean, berriz, dagokien artikulua eta kasu-marka jartzen zaizkie. Aurreko adibideen kasuan, honela:

Autobusaren irteera-orduak: zazpiak, zazpi eta erdiak, zortziak, bederatzia.

### Eskolako ordutegia

Goizez/Goizetan, bederatzietatik ordu batera. [edo: ordu bata arte]

Arratsaldez/Arratsaldeetan, hiruretatik bost eta erdietara. [edo: bost eta erdiak arte]

## 14.3.2 Artikulua eta kasu-markak jartzea

Testuaren barnean, artikulua eta kasu-markak zifrari atxikitzean, orduetako pluraleko kasumarka ezartzen zaie (*ordu/oren bata* eta *zero ordua/orena* salbuespen dira, singularrean ematen baitira)<sup>37</sup> eta minutuetako singularrekoa. *Bi* zenbakiarekin, *ordu/oren* hitza erabiltzen da: *ordu biak / bi orenak*<sup>38</sup>. Hurrengo zenbakiekin ez da *ordu* erabiltzen, baina *oren* erabil daiteke: *hiruretan / hiru orenetan; hamarrak / hamar orenak...*

Ohiko irakurbidean, 12 orduko sistema baliatzen da, nahiz eta zifraz 24 orduko sisteman idatzi. Dena dela, testuinguru berezi batzuetan beharrezkoa izan daiteke 24 orduko sisteman irakurtzea, tradizioz ez badu ere. Horregatik, bi irakurbideen adibideak ematen dira hurrengo puntuetako laukietan, ohikoarenak eta ezohikoarenak.

### 14.3.2.1 Minutuak zero direla adieraztea

Minutuak zero direnean, orduari dagokion artikulua ezartzen zaio azken zifrari, nahiz eta azken zifra minutuena izan. Ohiko irakurbidean minutuak ez dira aipatzen, baina informazio hori zehaztu egin behar litzateke irakurbide berezietan edo esparru jakin batzuetan (adibidez, gertakari astronomikoak —hala nola eklipseak— noiz diren zehaztean edo operazio militarren ordutegiak adieraztean).

Suhiltzaileak 07:00ak arte aritu dira sua itzaltzen.

(OHIKO IRAKURBIDEA) ... goizeko zazpiak arte...

(EZOHIKO IRAKURBIDEA) ... zazpiak eta zero minutu arte...

Ordutegia: 07:00etatik 23:00ak arte igandetik ostegunera.

(OHIKO IRAKURBIDEA) Ordutegia: goizeko zazpietatik gaueko hamaikak arte...

(EZOHIKO IRAKURBIDEA) Ordutegia: zazpiak eta zero minututik hogeita hirurak eta zero minutu arte...

<sup>37</sup> *Ordu batak* kasuan, Euskal Herriko mendebaldean eta erdialdeko zenbait tokitan *ordu batak dira* erabiltzen da.

<sup>38</sup> Nafarroan, toki batzuetan *bi orduak* erabiltzen da.



Urteko 365 egunetan egongo da zabalik, 07:00etatik 01:00a arte.

(OHIKO IRAKURBIDEA) ... goizeko zazpietatik gaueko ordu bata arte.

(EZOHIKO IRAKURBIDEA) ... zazpiak eta zero minututik ordu bata eta zero minutu arte.

ORDUA	TESTUAREN BARNEAN: ZER ORDU DA? ZER ORDUTAN? ZER ORDUTATIK? ZER ORDUTARA? ZER ORDU ARTE?	OHIKO IRAKURBIDEA	EZOHIKO IRAKURBIDEA
01:00	01:00a 01:00ean 01:00etik 01:00era 01:00a arte	(goizeko) ordu/oren bata (goizeko) ordu/oren batean (goizeko) ordu/oren batetik (goizeko) ordu/oren batera (goizeko) ordu/oren bata arte	ordu/oren bata eta zero minutu <sup>39</sup> ordu/oren bata eta zero minutuan ordu/oren bata eta zero minututik ordu/oren bata eta zero minutura ordu/oren bata eta zero minutu arte
02:00	02:00ak 02:00etan 02:00etatik 02:00etara 02:00ak arte	(goizeko) ordu biak / bi orenak / biak (goizeko) ordu bietan / bi orenetan / bietan (goizeko) ordu bietatik / bi orenetatik / bietatik (goizeko) ordu bietara / bi orenetara / bietara (goizeko) ordu biak arte / bi orenak arte / biak arte	ordu biak (edo bi orenak edo biak) eta zero minutu ordu biak (edo bi orenak edo biak) eta zero minutuan ordu biak (edo bi orenak edo biak) eta zero minututik ordu biak (edo bi orenak edo biak) eta zero minutura ordu biak (edo bi orenak edo biak) eta zero minutu arte
03:00	03:00ak <sup>40</sup> 03:00etan 03:00etatik 03:00etara 03:00ak arte	(goizeko) hirurak <sup>41</sup> (goizeko) hiruretan (goizeko) hiruretatik (goizeko) hiruretara (goizeko) hirurak arte	hirurak <sup>42</sup> eta zero minutu hirurak eta zero minutuan hirurak eta zero minututik hirurak eta zero minutura hirurak eta zero minutu arte

<sup>39</sup> *minutu* hitza gabe ere adieraz daiteke: *zero minutu* = *zero*, *zero minutuan* = *zeroan*, *zero minututik* = *zerotik*, *zero minutura* = *zerora*, *zero minutu arte* = *zero arte*.

<sup>40</sup> Antzina *hiru* eta *lau* zenbatzaileak *hirur* eta *laur* izan ziren, eta tradizioak gaur egun arte ekarri du pluralean amaierako *-r* hori atxikitzea kasu-markak hartzean.

Orduak zifraz idazten direnean, zalantza izan daiteke nola jokatu *-r* horrekin. Zenbakiaren parte da, eta ez kasu-markarena, eta, horregatik, ez da idatzi behar. Beraz, orduak zifraz adieraztean, **03:00etan** eta **04:00etan** idatziko da, baina **hiruretan** eta **lauretan** irakurriko da, eta **hiruretan** eta **lauretan** idatziko da ordua zifraz ez eta hitzez idazten denean. Eta berdin gainerako kasuetan ere (**03:00etatik** [hiruretatik], **03:00etara** [hiruretara], **03:00ak arte** [hirurak arte]; **04:00etatik** [lauretatik], **04:00etara** [lauretara], **04:00ak arte** [laurak arte].

<sup>41</sup> *hirurak* bezala, *hiru orenak* ere erabiltzen da (*hiru orenetan*, *hiru orenetatik*, *hiru orenetara*, *hiru orenak arte*), eta berdin gainerako orduetan ere (*lau orenetan*, *bost orenetatik*... *hamaika orenetara*, *hamabi orenak arte*), baina ez da molde hori erabiltzen ordu hitzarekin (*\*hiru orduak*, *\*lau orduetan*, *\*hamaika orduetatik*, *\*hamabi orduetara*).

<sup>42</sup> *hirurak eta zero [minutu]* bezala, *hiru orenak eta zero [minutu]* ere erabiltzen da (*hirurak eta zero minutuan* edo *hirurak eta zeroan*, *hirurak eta zero minututik* edo *hirurak eta zerotik*...), eta berdin gainerako orduetan ere (*lau orenak eta zero [minutu]*, *lau orenak eta zero minutuan* edo *lau orenak eta zeroan*... *hamaika orenak eta zero minututik* edo *hamaika orenak eta zerotik*...), baina molde hori ez da erabiltzen ordu hitzarekin: *\*hiru orduak eta zero [minutu]*, (*\*lau orduak eta zero minutuan* edo *\*lau orduak eta zeroan*... *\*hamaika orduak eta zero minututik* edo *\*hamaika orduak eta zerotik*, *\*hamabi orduak eta zero minutura* edo *\*hamabi orduak eta zerora*).



ORDUA	TESTUAREN BARNEAN: ZER ORDU DA? ZER ORDUTAN? ZER ORDUTATIK? ZER ORDUTARA? ZER ORDU ARTE?	OHIKO IRAKURBIDEA	EZOHIKO IRAKURBIDEA
04:00	04:00ak 04:00etan 04:00etatik 04:00etara 04:00ak arte	(goizeko) laurak (goizeko) lauretan (goizeko) lauretatik (goizeko) lauretara (goizeko) laurak arte	laurak eta zero minutu laurak eta zero minutuan laurak eta zero minututik laurak eta zero minutura laurak eta zero minutu arte
05:00	05:00ak 05:00etan 05:00etatik 05:00etara 05:00ak arte	(goizeko) bostak (goizeko) bostetan (goizeko) bostetatik (goizeko) bostetara (goizeko) bostak arte	bostak eta zero minutu bostak eta zero minutuan bostak eta zero minututik bostak eta zero minutura bostak eta zero minutu arte
(...)			
11:00	11:00ak 11:00etan 11:00etatik 11:00etara 11:00ak arte	(goizeko) hamaikak (goizeko) hamaiketan (goizeko) hamaiketatik (goizeko) hamaiketara (goizeko) hamaikak arte	hamaikak eta zero minutu hamaikak eta zero minutuan hamaikak eta zero minututik hamaikak eta zero minutura hamaikak eta zero minutu arte
12:00	12:00ak 12:00etan 12:00etatik 12:00etara 12:00ak arte	(eguerdiko) hamabiak (eguerdiko) hamabietan (eguerdiko) hamabietatik (eguerdiko) hamabietara (eguerdiko) hamabiak arte	hamabiak eta zero minutu hamabiak eta zero minutuan hamabiak eta zero minututik hamabiak eta zero minutura hamabiak eta zero minutu arte
13:00	13:00ak 13:00etan 13:00etatik 13:00etara 13:00ak arte	(eguerdiko) ordu/oren bata (eguerdiko) ordu/oren batean (eguerdiko) ordu/oren batetik (eguerdiko) ordu/oren batera (eguerdiko) ordu/oren bata arte	hamahiruak eta zero minutu <sup>43</sup> hamahiruak eta zero minutuan hamahiruak eta zero minututik hamahiruak eta zero minutura hamahiruak eta zero minutu arte
14:00	14:00ak 14:00etan 14:00etatik 14:00etara 14:00ak arte	(arrats[ald]eko) ordu biak / bi orenak (arrats[ald]eko) ordu bietan / bi orenetan (arrats[ald]eko) ordu bietatik / bi orenetatik (arrats[ald]eko) ordu bietara / bi orenetara (arrats[ald]eko) ordu biak arte / bi orenak arte	hamalauak eta zero minutu <sup>44</sup> hamalauak eta zero minutuan hamalauak eta zero minututik hamalauak eta zero minutura hamalauak eta zero minutu arte

<sup>43</sup> Ezohiko irakurbidean minutuak aipatzen ez badira, honela irakurriko liriateke: (13:00ak) *hamahiruak*, (13:00etan) *hamahiruetan*, (13:00etatik) *hamahiruetatik*, (13:00etara) *hamahiruetara*, (13:00ak arte) *hamahiruak arte*.

(14:00ak) *hamalauak*, (14:00etan) *hamalauetan*, (14:00etatik) *hamalauetatik*, (14:00etara) *hamalauetara*, (14:00ak arte) *hamalauak arte*.

Horrelakoak egoera berezietan bakarrik erabiliko liriateke, ezohikoetan. Izan ere, *hamahiruak* eta *hamalauak* gabe, *ordu/oren bata* eta *ordu biak* / bi orenak erabiltzen da, eta testuinguruak argitzen du eguerdiaz geroztiko orduak direla eta ez goizekoak.

<sup>44</sup> Ikus aurreko oin-oharra.



ORDUA	TESTUAREN BARNEAN: ZER ORDU DA? ZER ORDUTAN? ZER ORDUTATIK? ZER ORDUTARA? ZER ORDU ARTE?	OHIKO IRAKURBIDEA	EZOHIKO IRAKURBIDEA
15:00	15:00ak 15:00etan 15:00etatik 15:00etara 15:00ak arte	(arrats[ald]eko) hirurak (arrats[ald]eko) hiruretan (arrats[ald]eko) hiruretatik (arrats[ald]eko) hiruretara (arrats[ald]eko) hirurak arte	hamabostak eta zero minutu hamabostak eta zero minutuan hamabostak eta zero minututik hamabostak eta zero minutura hamabostak eta zero minutu arte
(...)			
20:00	20:00ak 20:00etan 20:00etatik 20:00etara 20:00ak arte	(arrats[ald]eko/gaueko <sup>45</sup> ) zortziak (arrats[ald]eko/gaueko) zortzietan (arrats[ald]eko/gaueko) zortzietatik (arrats[ald]eko/gaueko) zortzietara (arrats[ald]eko/gaueko) zortziak arte	hogeiak eta zero minutu hogeiak eta zero minutuan hogeiak eta zero minututik hogeiak eta zero minutura hogeiak eta zero minutu arte
21:00	21:00ak 21:00etan 21:00etatik 21:00etara 21:00ak arte	(gaueko) bederatziak (gaueko) bederatzietan (gaueko) bederatzietatik (gaueko) bederatzietara (gaueko) bederatziak arte	hogeita batak eta zero minutu hogeita batak eta zero minutuan hogeita batak eta zero minututik hogeita batak eta zero minutura hogeita batak eta zero minutu arte
(...)			
23:00	23:00ak 23:00etan 23:00etatik 23:00etara 23:00ak arte	(gaueko) hamaikak (gaueko) hamaiketan (gaueko) hamaiketatik (gaueko) hamaiketara (gaueko) hamaikak arte	hogeita hiruak eta zero minutu hogeita hiruak eta zero minutuan hogeita hiruak eta zero minututik hogeita hiruak eta zero minutura hogeita hiruak eta zero minutu arte
24:00	24:00ak 24:00etan 24:00etatik 24:00etara 24:00ak arte	(gaueko/gauerdiko) hamabiak (gaueko/gauerdiko) hamabietan (gaueko/gauerdiko) hamabietatik (gaueko/gauerdiko) hamabietara (gaueko/gauerdiko) hamabiak arte	hogeita lauak hogeita lauetan hogeita lauetatik hogeita laueta hogeita lauak arte
00:00	00:00ak 00:00etan 00:00etatik 00:00etara 00:00ak arte	(gaueko/gauerdiko) hamabiak (gaueko/gauerdiko) hamabietan (gaueko/gauerdiko) hamabietatik (gaueko/gauerdiko) hamabietara (gaueko/gauerdiko) hamabiak arte	zero ordua/orena eta zero minutu zero ordua/orena eta zero minutuan zero ordua/orena eta zero minututik zero ordua/orena eta zero minutura zero ordua/orena eta zero minutu arte

<sup>45</sup> gaueko bezala *iluntzeko* ere erabiltzen da gauaren hasiera adierazteko: *iluntzeko 8etatik 11k arte*.



### 14.3.2.2 Minutuak zero ez direla adieraztea

Minutuak zero ez direnean, ohiko irakurbidean zein ezohikoan aipatu behar dira. Orduari dagokion artikulua ez zaio ezartzen zifrari (adibidez, ez da 03ak:05 idazten, 03:05 baizik), baina irakurbidean zehaztu egin behar da. Minutuei singularreko kasumarkak ezartzen zaizkie.

ORDUA	TESTUAREN BARNEAN: ZER ORDU DA? ZER ORDUTAN? ZER ORDUTATIK? ZER ORDUTARA? ZER ORDU ARTE?	OHIKO IRAKURBIDEA	EZOHIKO IRAKURBIDEA
00:08	00:08 00:08an 00:08tik 00:08ra 00:08 arte	(gaueko/gauerdiko) hamabiak eta zortzi (gaueko/gauerdiko) hamabiak eta zortzian (gaueko/gauerdiko) hamabiak eta zortzitik (gaueko/gauerdiko) hamabiak eta zortzira (gaueko/gauerdiko) hamabiak eta zortzi arte	zero ordua/orena eta zortzi minutu zero ordua/orena eta zortzi minutuan zero ordua/orena eta zortzi minututik zero ordua/orena eta zortzi minutura zero ordua/orena eta zortzi minutu arte
01:01	01:01 01:01ean 01:01etik 01:01era 01:01 arte	(goizeko) ordu/oren bata eta bat (goizeko) ordu/oren bata eta batean (goizeko) ordu/oren bata eta batetik (goizeko) ordu/oren bata eta batera (goizeko) ordu/oren bata eta bat arte	orduek bata eta minutu bat orduek bata eta minutu batean orduek bata eta minutu batetik orduek bata eta minutu batera orduek bata eta minutu bat arte
02:03	02:03 02:03an 02:03tik 02:03ra 02:03 arte	(goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta hiru (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta hiruan (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta hirutik (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta hirura (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta hiru arte	orduek biak (edo bi orenak) eta hiru minutu orduek biak (edo bi orenak) eta hiru minutuan orduek biak (edo bi orenak) eta hiru minututik orduek biak (edo bi orenak) eta hiru minutura orduek biak (edo bi orenak) eta hiru minutu arte
03:05	03:05 03:05ean 03:05etik 03:05era 03:05 arte	(goizeko) hirurak eta bost (goizeko) hirurak eta bostean (goizeko) hirurak eta bostetik (goizeko) hirurak eta bostera (goizeko) hirurak eta bost arte	hirurak eta bost minutu hirurak eta bost minutuan hirurak eta bost minututik hirurak eta bost minutura hirurak eta bost minutu arte
(...)			

### 14.3.2.3 Minutuak hamabost direla adieraztea

Minutuak hamabost direnean, orduaren laurdena da, eta *laurden* erabiltzen da ohiko irakurbidean (baina *hamabost* hitza ere erabil daiteke). Eta bi aukera daude: minutuekin egiten den bezala pluralaren marka orduaren hitzari eranstea eta *laurden* hitza mugagabeen uztea (seiak eta laurden; seiak eta laurdenetan) edo orduari dagokion hitza mugagabeen uztea eta pluraleko marka *laurden* hitzari eranstea (sei eta laurdenak; sei eta laurdenetan). Testuetan, joerarik zabalduena, dena dela, lehena da: seiak eta laurden, seiak eta laurdenetan... Baldin eta *laurden* hitzaren ordeztuak minutukopurua esaten bada, minutuei singularreko kasu-markak ezartzen zaizkie.



ORDUA	<b>TESTUAREN BARNEAN: ZER ORDU DA? ZER ORDUTAN? ZER ORDUTATIK? ZER ORDUTARA? ZER ORDU ARTE?</b>	OHIKO IRAKURBIDEA	EZOHIKO IRAKURBIDEA
01:15	01:15  01:15ean  01:15etik  01:15era  01:15 arte	(goizeko) ordu/oren bata eta laurden (goizeko) ordu/oren bat eta laurdenak (goizeko) ordu/oren bata eta hamabost  (goizeko) ordu/oren bata eta laurdenetan (goizeko) ordu/oren bat eta laurdenetan (goizeko) ordu/oren bata eta hamabostean  (goizeko) ordu/oren bata eta laurdenetatik (goizeko) ordu/oren bat eta laurdenetatik (goizeko) ordu/oren bata eta hamabostetik  (goizeko) ordu/oren bata eta laurdenetara (goizeko) ordu/oren bat eta laurdenetara (goizeko) ordu/oren bata eta hamabostera  (goizeko) ordu/oren bata eta laurden arte (goizeko) ordu/oren bat eta laurdenak arte (goizeko) ordu/oren bata eta hamabost arte	ordu/oren bata eta hamabost minutu  ordu/oren bata eta hamabost minutuan  ordu/oren bata eta hamabost minututik  ordu/oren bata eta hamabost minutura  ordu/oren bata eta hamabost minutu arte
02:15	02:15  02:15ean  02:15etik  02:15era  02:15 arte	(goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta laurden (goizeko) ordu bi (edo bi orenak) eta laurdenak (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta hamabost  (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta laurdenetan (goizeko) ordu bi (edo bi orenak) eta laurdenetan (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta hamabostean  (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta laurdenetatik (goizeko) ordu bi (edo bi orenak) eta laurdenetatik (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta hamabostetik  (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta laurdenetara (goizeko) ordu bi (edo bi orenak) eta laurdenetara (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta hamabostera  (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta laurden arte (goizeko) ordu bi (edo bi orenak) eta laurdenak arte (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta hamabost arte	ordu biak (edo bi orenak) eta hamabost minutu  ordu biak (edo bi orenak) eta hamabost minutuan  ordu biak (edo bi orenak) eta hamabost minututik  ordu biak (edo bi orenak) eta hamabost minutura  ordu biak (edo bi orenak) eta hamabost minutu arte



ORDUA	TESTUAREN BARNEAN: ZER ORDU DA? ZER ORDUTAN? ZER ORDUTATIK? ZER ORDUTARA? ZER ORDU ARTE?	OHIKO IRAKURBIDEA	EZOHIKO IRAKURBIDEA
03:15	03:15  03:15ean  03:15etik  03:15era  03:15 arte	(goizeko) hirurak eta laurden (goizeko) hiru eta laurdenak (goizeko) hirurak eta hamabost  (goizeko) hirurak eta laurdenetan (goizeko) hiru eta laurdenetan (goizeko) hirurak eta hamabostean  (goizeko) hirurak eta laurdenetatik (goizeko) hiru eta laurdenetatik (goizeko) hirurak eta hamabostetik  (goizeko) hirurak eta laurdenetara (goizeko) hiru eta laurdenetara (goizeko) hirurak eta hamabostera  (goizeko) hirurak eta laurden arte (goizeko) hiru eta laurdenak arte (goizeko) hirurak eta hamabost arte	hirurak eta hamabost minutu  hirurak eta hamabost minutuan  hirurak eta hamabost minututik  hirurak eta hamabost minutura  hirurak eta hamabost minutu arte
(...)			

#### 14.3.2.4 Minutuak hogeita hamar direla adieraztea

Minutuak hogeita hamar direnean, orduaren erdia da, eta *erdi* erabiltzen da ohiko irakurbidean (baina *hogeita hamar* ere erabil daiteke). Plural-marka *erdi* hitzari bakarrik ezartzea da gomendioa, eta, horrenbestez, sintagma plural horrek hartzen ditu kasumarkak: hiru eta erdiak, hiru eta erdietan... Dena dela, *oren* hitza ezartzen denean, *oren* hitzari ere ezartzen zaio plural-marka: hiru orenak eta erdiak, hiru orenak eta erdietan... Baldin eta *erdi* hitzaren ordez minutukopurua esaten bada, minutuak singularrean.



ORDUA	<b>TESTUAREN BARNEAN: ZER ORDU DA? ZER ORDUTAN? ZER ORDUTATIK? ZER ORDUTARA? ZER ORDU ARTE?</b>	OHIKO IRAKURBIDEA	EZOHIKO IRAKURBIDEA
01:30	01:30  01:30ean  01:30etik  01:30era  01:30 arte	(goizeko) ordu/oren bat eta erdiak (goizeko) ordu/oren bata eta hogeita hamar  (goizeko) ordu/oren bat eta erdietan (goizeko) ordu/oren bata eta hogeita hamarreen  (goizeko) ordu/oren bat eta erdietatik (goizeko) ordu/oren bat eta hogeita hamarretik  (goizeko) ordu/oren bat eta erdietara (goizeko) ordu/oren bat eta hogeita hamarrera  (goizeko) ordu/oren bat eta erdiak arte (goizeko) ordu/oren bata eta hogeita hamar arte	ordu/oren bata eta hogeita hamar minutu  ordu/oren bata eta hogeita hamar minutuan  ordu/oren bata eta hogeita hamar minututik  ordu/oren bata eta hogeita hamar minutura  ordu/oren bata eta hogeita hamar minutu arte
02:30	02:30  02:30ean  02:30etik  02:30era  02:30 arte	(goizeko) ordu bi (edo bi orenak) eta erdiak (goizeko) ordu bi (edo bi orenak) eta hogeita hamar  (goizeko) ordu bi (edo bi orenak) eta erdietan (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta hogeita hamarreen  (goizeko) ordu bi (edo bi orenak) eta erdietatik (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta hogeita hamarretik  (goizeko) ordu bi (edo bi orenak) eta erdietara (goizeko) ordu bi (edo bi orenak) eta hogeita hamarrera  (goizeko) ordu bi (edo bi orenak) eta erdiak arte (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta hogeita hamar arte	ordu biak (edo bi orenak) eta hogeita hamar minutu  ordu biak (edo bi orenak) eta hogeita hamar minutuan  ordu biak (edo bi orenak) eta hogeita hamar minututik  ordu biak (edo bi orenak) eta hogeita hamar minutura  ordu biak (edo bi orenak) eta hogeita hamar minutu arte



ORDUA	TESTUAREN BARNEAN: ZER ORDU DA? ZER ORDUTAN? ZER ORDUTATIK? ZER ORDUTARA? ZER ORDU ARTE?	OHIKO IRAKURBIDEA	EZOHIKO IRAKURBIDEA
03:30	03:30  03:30ean  03:30etik  03:30era  03:30 arte	(goizeko) hiru eta erdiak (goizeko) hirurak eta hogeita hamar  (goizeko) hiru eta erdietan (goizeko) hirurak eta hogeita hamarreen  (goizeko) hiru eta erdietatik (goizeko) hirurak eta hogeita hamarretik  (goizeko) hiru eta erdietara (goizeko) hirurak eta hogeita hamarrera  (goizeko) hiru eta erdiak arte (goizeko) hirurak eta hogeita hamar arte	hirurak eta hogeita hamar minutu  hirurak eta hogeita hamar minutuan  hirurak eta hogeita hamar minututik  hirurak eta hogeita hamar minutura  hirurak eta hogeita hamar minutu arte
(...)			

#### 14.3.2.5 Hurrengo ordurako zenbat falta den adieraztea

Hurrengo ordura iristeko zenbat falta den adierazteko, *gutxi/guti* erabiltzen da ohiko irakurbidean (hori da hedatuena, baina *gutxiago/gutiago* ere erabil daiteke). Orduaren zenbakiari plural-marka ezartzen zaio: *bostak laurden gutxi, bostak laurden gutxitan*.



ORDUA	<b>TESTUAREN BARNEAN: ZER ORDU DA? ZER ORDUTAN? ZER ORDUTATIK? ZER ORDUTARA? ZER ORDU ARTE?</b>	OHIKO IRAKURBIDEA	EZOHIKO IRAKURBIDEA
00:45	00:45  00:45ean  00:45etik  00:45era  00:45 arte	(goizeko) ordu/oren bata laurden gutxi(ago)/guti(ago) (gaueko) hamabiak eta berrogeita bost  (goizeko) ordu/oren bata laurden gutxi(ago)tan/ guti(ago)tan (gaueko) hamabiak eta berrogeita bostean  (goizeko) ordu/oren bata laurden gutxi(ago)tatik/ guti(ago)tarik (gaueko) ordu/oren bat eta berrogeita bostetik  (goizeko) ordu/oren bata laurden gutxi(ago)tara/ guti(ago)tara (gaueko) ordu/oren bat eta berrogeita bostera  (goizeko) ordu/oren bata laurden gutxi(ago)/ guti(ago) arte (gaueko) ordu/oren bata eta berrogeita bost arte	zero ordua/orena eta berrogeita bost minutu  zero ordua/orena eta berrogeita bost minutuan  zero ordua/orena eta berrogeita bost minututik  zero ordua/orena eta berrogeita bost minutura  zero ordua/orena eta berrogeita bost minutu arte
01:45	01:45  01:45ean  01:45etik  01:45era  01:45 arte	(goizeko) ordu biak (edo bi orenak) laurden gutxi(ago)/guti(ago) (goizeko) ordu bata eta berrogeita bost  (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) laurden gutxi(ago)tan/guti(ago)tan (goizeko) ordu bata eta berrogeita bostean  (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) laurden gutxi(ago)tatik/guti(ago)tarik (goizeko) ordu bata eta berrogeita bostetik  (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) laurden gutxi(ago)ra/guti(ago)tara (goizeko) ordu bata eta berrogeita bostera  (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) laurden gutxi(ago)/guti(ago) arte (goizeko) ordu bata eta berrogeita bost arte	ordu bata eta berrogeita bost minutu  ordu bata eta berrogeita bost minutuan  ordu bata eta berrogeita bost minututik  ordu bata eta berrogeita bost minutura  ordu bata eta berrogeita bost minutu arte



ORDUA	TESTUAREN BARNEAN: ZER ORDU DA? ZER ORDUTAN? ZER ORDUTATIK? ZER ORDUTARA? ZER ORDU ARTE?	OHIKO IRAKURBIDEA	EZOHIKO IRAKURBIDEA
02:45	02:45  02:45ean  02:45etik  02:45era  02:45 arte	(goizeko) hirurak laurden gutxi(ago)/guti(ago) (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta berrogeita bost  (goizeko) hirurak laurden gutxi(ago)tan/guti(ago)tan (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta berrogeita bostean  (goizeko) hirurak laurden gutxi(ago)tatik/guti(ago)tarik (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta berrogeita bostetik  (goizeko) hirurak laurden gutxi(ago)tara/guti(ago)tara (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta berrogeita bostera  (goizeko) hirurak laurden gutxi(ago)/guti(ago) arte (goizeko) ordu biak (edo bi orenak) eta berrogeita bost arte	ordu bi (edo bi orenak) eta berrogeita bost minutu  ordu biak (edo bi orenak) eta berrogeita bost minutuan  ordu biak (edo bi orenak) eta berrogeita bost minututik  ordu biak (edo bi orenak) eta berrogeita bost minutura  ordu biak (edo bi orenak) eta berrogeita bost minutu arte
03:40	03:40  03:40an  03:40tik  03:40ra  03:40 arte	(goizeko) laurak hoge gutxi(ago)/guti(ago) (goizeko) hirurak eta berrogei  (goizeko) laurak hoge gutxi(ago)tan/guti(ago)tan (goizeko) hirurak eta berrogeian  (goizeko) laurak hoge gutxi(ago)tatik/guti(ago)tarik (goizeko) hirurak eta berrogeitik  (goizeko) laurak hoge gutxi(ago)tara/guti(ago)tara (goizeko) hirurak eta berrogeira  (goizeko) laurak hoge gutxi(ago)/guti(ago) arte (goizeko) hirurak eta berrogei arte	hirurak eta berrogei minutu  hirurak eta berrogei minutuan  hirurak eta berrogei minututik  hirurak eta berrogei minutura  hirurak eta berrogei minutu arte



ORDUA	TESTUAREN BARNEAN: ZER ORDU DA? ZER ORDUTAN? ZER ORDUTATIK? ZER ORDUTARA? ZER ORDU ARTE?	OHIKO IRAKURBIDEA	EZOHIKO IRAKURBIDEA
04:50	04:50	(goizeko) bostak hamar gutxi(ago)/guti(ago) (goizeko) laurak eta berrogeita hamar	laurak eta berrogeita hamar minutu
	04:50ean	(goizeko) bostak hamar gutxi(ago)tan/guti(ago)tan (goizeko) laurak eta berrogeita hamarreen	laurak eta berrogeita hamar minutuan
	04:50etik	(goizeko) bostak hamar gutxi(ago)tatik/guti(ago)tarik (goizeko) laurak eta berrogeita hamarretik	laurak eta berrogeita hamar minututik
	04:50era	(goizeko) bostak hamar gutxi(ago)tara/guti(ago)tara (goizeko) laurak eta berrogeita hamarrera	laurak eta berrogeita hamar minutura
	04:50 arte	(goizeko) bostak hamar gutxi(ago)/guti(ago) arte (goizeko) laurak eta berrogeita hamar arte	laurak eta berrogeita hamar minutu arte
05:55	05:55	(goizeko) seiak bost gutxi(ago)/guti(ago) (goizeko) bostak eta berrogeita hamabost	bostak eta berrogeita hamabost minutu
	05:55ean	(goizeko) seiak bost gutxi(ago)tan/guti(ago)tan (goizeko) bostak eta berrogeita hamabostean	bostak eta berrogeita hamabost minutuan
	05:55etik	(goizeko) seiak bost gutxi(ago)tatik/guti(ago)tarik (goizeko) bostak eta berrogeita hamabostetik	bostak eta berrogeita hamabost minututik
	05:55era	(goizeko) seiak bost gutxi(ago)tara/guti(ago)tara (goizeko) bostak eta berrogeita hamabostera	bostak eta berrogeita hamabost minutura
	05:55 arte	(goizeko) seiak bost gutxi(ago)/guti(ago) arte (goizeko) bostak eta berrogeita hamabost arte	bostak eta berrogeita hamabost minutu arte
(...)			

### 14.3.2.6 Segundoak ere adieraztea

Zehaztasun handia behar denean, minutuez gainera segundoak ere adierazten dira. Hori ez da gertatzen ohiko irakurbidean, baina ezohikoan bai. Ez dago tradizioz ordua horrela zehazteko, baina minutuekin bezala egitea da gomendioa; hau da, kasu-markak singularrean irakurtzea:

Orain 11:20:50 dira.

(Orain hamaikak, hogeit hamar minutu eta berrogeita hamar segundo dira)

Droneak 00:00:00an abiatu ziren.

(Droneak zero ordu, zero minutu eta zero segundoan abiatu ziren)



Zehaztasun are handiagoa behar denean, dezimalak erabil daitezke.

Leherketa 11:20:50,5ean gertatu zen.

(Leherketa hamaikak, hogei minutu eta berrogeita hamar koma bost segundoan gertatu zen)

### 14.3.3 Gutxi gorabeherako ordua adieraztea

Ordu ez-zehatzaren berri emateko, letraz idazten denean, orduaren zenbakia pluralean ematen da, *ordu/oren bata* denean izan ezik, eta jarraian *aldean/aldera/aldeetik, inguruan/ingurutik/ingurura, irian* postposizioa idazten.

Bederatziak aldean joan zen irakaslea.

Ama zortziak irian jin zen.

Bizkondesa oren bata inguruan heldu zen nire gelara

Arratsaldeko hirurak ingurutik bostak arte itxita egon da epaitegia.

Arratsaldeko hirurak eta laurden aldera askatu dituzte.

Sua goizeko lau eta erdiak aldera piztu da.

Hamabiak eta hamar aldera, frontoiko ataka zabaldu zen.

Gutxi gorabeherako orduak zifraz idazten direnean, ordu zehatza ematean *arte* postposizioa bezala jartzen dira *alde, inguru* eta *iri* postposizioak.

Igeltseroak 02:00ak inguruan etorri ziren.

Ama 08:00ak irian jin zen.

Arratsaldeko 15:15 aldera askatu dituzte.

Ikasleak 20:30 aldean iritsi ziren geltokira.

Arratseko 22:00ak irian, herriko etxeko balkoitik hiru gako botatzen dituzte.

## 15 Data adieraztea

Egutegiko egun jakin bat definitzen du datak (gure ingurunean, eta ia mundu osoan, egutegi gregorianoa erabiltzen da), eta hiru denbora-erreferentziarekin eratzen da: urtea, hilabetea eta eguna.

Data osatzen duten hiru elementu horien ordena ez da berdina hizkuntza guztietan eta herrialde guztietan. Adibidez, gaztelaniaz eta frantsesez, denbora-erreferentzia txikienetik handienerako hurrenkera baliatzen da: eguna-hilabetea-urtea. Eta Estatu Batuetan, kasurako, hilabetea-eguna-urtea. Euskaraz, berriz, erreferentzia handienetik txikienerako hurrenkera baliatzen da: urtea-hilabetea-eguna. Euskararen formatu hori bera gomendatzen du ISO 8061 nazioarteko arauak ere data zifraz adierazi behar denerako. Horregatik, batez ere nazioarteko dokumentuetan eta dokumentu teknikoetan, formatu hori erabiltzen da bestelako tradizioa duten beste hizkuntza askotan ere.

1995ean argitaratu zuen Euskaltzaindiak *Data nola adierazi* araua (37. araua). Hartan zehazten dira data hitzez eta zifraz adierazteko formatuak.



## 15.1 Hitzen eta zifren konbinazioa data adierazteko

Testu orokorretan, urtea zifraz idazten da, hilabetea hitzez eta letra xehez, eta eguna zifraz<sup>46</sup>. Datarekin batera tokia zehaztu behar denean —gutunen hasieran edo amaieran, adibidez—, dataren aurretik ezartzen da leku-izena, eta koma batez bereizten dira lekua eta data. Bi formatu balia daitezke: NON, NOIZ edo LEKUA, DATA:

(NON, NOIZ) Durangon, 1983ko martxoaren 7an

(LEKUA, DATA) Durango, 1983ko martxoaren 7a

### OHARRA

Hilabetea eta eguna bakarrik adierazteko, ohiko moduz gainera (*urtarrilaren 20a, martxoaren 8a*), bada beste aukera bat: ergatiboaren marka ezartzea hilaren izenari eta hileko eguna kasu-markarik gabe uztea:

urtarrilak 20

martxoak 8

Azken aukera horrek, baina, erabilera mugatua du, ezin baitu kasu-markarik hartu (*hilak x egiturak hilak x egun dituela* adierazten du; horregatik ez du kasu-markarik hartzen); beraz, beste zerbaiten aposizioan doanean bakarrik erabil daiteke (koma artean).

(EGOKIA) Asteazkenean, urtarrilak 20, denda itxita egongo da.

(DESEGOKIA) Asteazkenean, urtarrilak 20an, denda itxita egongo da.

(EGOKIA) Manifestazio jendetsua izan zen martxoaren 8an.

(DESEGOKIA) Manifestazio jendetsua izan zen martxoak 8an.

### OHARRA

Urtea idazteko, ez da punturik ez zuriunerik idatzi behar milakoen digituaren ondotik.

(DESEGOKIA) 1.983ko martxoaren 7a

(DESEGOKIA) 1 983ko martxoaren 7a

Asteko eguna ere adierazi behar bada, aposizioan jartzen da, dataren ondoren.

(EGOKIA) martxoaren 7a, osteguna

(EGOKIA) martxoaren 7an, ostegunean

(EGOKIA) martxoaren 7an, ostegunarekin

(DESEGOKIA) martxoaren 7an, ostegunez

<sup>46</sup> Urtea letraz ere idatz daiteke, baina ez da ohikoa testu arruntetan. Dokumentu juridiko eta administratibo batzuetan, dena dela, ohikoa da data osorik letraz idaztea, segurtasunagatik, bermatzeko data ezingo dela aldatu. Hala egiten da, adibidez, banku-txekeetan, notario-aktetan edo eskritura publikoetan.

Eta demandatuari behar bezalako jakinarazpena egiteko balio dezan ematen eta sinatzen dut hau, Barakaldon (Bizkaia), bi mila eta hiruko urriaren hogeita hiruan.



## 15.2 Data zifra bidez adieraztea

Data modu laburtuan adierazteko, zifrak bakarrik erabiltzen dira: urtearen, hilabetearen eta egunaren zifrak. ISO 8061 nazioarteko arauaren arabera, marratxoa erabili behar da dataren osagaiak bata bestetik bereizteko, eta ez da zuriunerik jarri behar. Eta hilabetearen edo egunaren zifra hamar baino txikiagoa denean, zero bat jartzen da aurretik<sup>47</sup>.

1983-03-07

Hori da, beraz, formatu lehenetsia. Testu arruntetan, dena dela, barra etzana ere balia daiteke marratxoaren ordez.

1983/03/07

Data zifra bidez adierazten denean testu batean txertatu gabe, absolutiboan, ez zaio artikulua eransten. Ulertu behar da konbentzio bat dela, eta, beraz, irakurtzean artikulua ezarri behar da:

Data: 1983-03-07

IRAKURKETA EGOKIA:

Data: mila bederatziehun eta laurogeita hiruko martxoaren zazpia

IRAKURKETA DESEGOKIA:

Data: mila bederatziehun eta laurogeita hiruko martxoaren zazpi

Kasu-markak hartzen dituenean, artikulua ere hartzen du hala dagokionean.

1998-11-23ko bilera-agiria

Irteerak: 2024-06-22an eta 2024-10-12an<sup>48</sup>

Lasterketa 2023-10-14an izango da.

Horretarako, beharrezkoa da 2022-06-15aren aurretik erroldatuta egotea.

## 15.3 Dataren adierazpen laburtua

Testuinguruak anbiguotasunerako biderik uzten ez duenean edo beharrezkoa ez denean, ohikoa da dataren hiru osagaiak adierazi beharrean urtea ez aipatzea eta hilabetea eta eguna bakarrik idaztea.

Bai, urtarrilaren 20a da San Sebastian.

Udal-hauteskundeak urriaren 28an izango dira.

<sup>47</sup> 1995eko arauak hilabetea zenbaki erromatarrez idazteko aukera ere jasotzen du: 1983-III-7. Dena dela, molde hori zaharkitua dago.

<sup>48</sup> Kasu honetan, bi puntuen ondoren dagoenez, kasu-markarik gabe ere erabil daiteke:

Irteerak: 2024-06-22 eta 2024-10-12



Eta bada beste modu bat data are modu laburragoan idazteko, urteko egun aipagarri bat laburtzeko maiz baliatua hedabideetan, egun hori dena delakoagatik bereziki gogoangarria denean: urtea ez aipatzea, hilabetearen inisiala bakarrik hartzea (letra larriz idatzita) eta, ondotik, hileko eguna zifraz idaztea, hilabetearen inisialaren eta egunaren zifraren artean marratxoa jarrita<sup>49</sup>.

Lehendakariak I-11ko atentatuen inguruko dokumentuak desklasifikatzea agindu du.

Baserritar eta herri-kiolariei omenaldia M-8an

GALi eta O-23ari buruzko agiriak desklasifikatzearen alde agertu da ministroa.

Horrelakoak irakurtzean, jatorrizkoa berreraikitzen da (*irailaren hamaikako / martxoaren zortzian / otsailaren hogeita hiruari*) edo inisiala sigla moduan irakurtzen da (*i hamaikako / eme zortzian / o hogeita hiruari*).

## 16 Urtea adieraztea eta urtearen adierazpen laburtua

Urteak zifraz idazteko, zenbaki arabiarrak erabiltzen dira. Monumentu, oroitarri eta plaketako idazkun zaharretan bakarrik erabiltzen dira zenbaki erromatarrak (ikus 3.1.2).

Urtea gure aroaren aurrekoa edo ondokoa dela zehaztu behar izanez gero, *K.a.* (Kristo aurreko) eta *K.o.* (Kristo ondoko) laburdurak erabiltzen dira, urtearen aurretik paratuak. Ez da erabili behar minus zeinua urtearen zifraren aurretik gure aroaren aurrekoa dela adierazteko.

(EGOKIA) Tiberio enperadorea K.a. 42an jaio zen eta K.o. 37an hil zen.

(DESEGOKIA) Tiberio enperadorea -42an jaio zen eta 37an hil zen.

Terminologia neutralagoa edo inklusiboagoa erabiltzearen (erlijio edo zibilizazio bati erreferentzia ez egiteko), beste laburdura batzuk baliatzea proposatu da: *o.a.a.* (oraingo aroaren aurreko) eta *o.a.* (oraingo aroko), baina oso gutxi erabiltzen dira<sup>50</sup>.

Lagin guztiak *o.a.a.* 100. eta *o.a.* 699. urteen artean datatuta daude.

Testuinguru ezagunetan edo data historiko batzuetan, modu laburtuan adierazten da urtea, osorik idatzi beharrean azken bi zifrak bakarrik erabilia. Adierazmolde egokia da, baldin eta anbiguotasunik ez badago. Bestela, hobe da osorik idaztea.

Ni 59an jaio nintzen, eta arreba 57an.

Bi obsesio ditu: musika klasikoa, eta 36ko gerran ikusitako izugarrikeriak.

Filma 68ko Maiatzean giroturik dago.

Espainiako 98ko belaunaldiko intelektualak ziren.

<sup>49</sup> Marratxoa jartzea komeni da nahasbideak saihesteko, irailaren I inisialak eta otsailaren O inisialak 1 eta 0 zenbakien antzekoak baitira, hurrenez hurren (antzekoagoak letra-tipo batzuetan beste batzuetan baino).

<sup>50</sup> Beste hizkuntza batzuetan ere badira laburtzapen alternatiboak. Adibidez, ingelesez, *BCE* (*Before the Common Era*) eta *CE* (*Common Era*); gaztelaniaz, *a. n. e.* (*antes de nuestra era*) edo *a. e. c.* (*antes de la era común*) eta *d. n. e.* (*después de nuestra era*) edo *d. e. c.* (*después de la era común*); frantsesez *EC* edo *è. c.* (*ère commune*) eta *AEC* edo *av. è. c.* (*avant l'ère commune*).



2000. urteaz geroztikoetan, ohikoa da hasieran lau zifrak idaztea, batez ere lehen hamarkadan. Mendeak aurrera egin ahala, modu laburtua gero eta gehiago erabiliko da.

Iloba 2022an jaio zen.

Kilometroak 2024ren zutabe nagusiak euskara eta euskal kultura dira.

## 17 Hamarkada adieraztea

Mende bateko hamarkadak edo hamarraldiak adierazteko, hamarkadaren hasierako urtea idazten da (kardinala, ez ordinala), eta *-ko* eransten zaio hurrengo hitzarekin lotzeko. Hurrengo hitza *urte* baldin bada, pluraleko artikulua eta kasu-markak hartzen ditu (1920ko urteak); *hamarkada* edo *hamarraldi* baldin bada, berriz, singularrekoa (1920ko hamarkada).

(EGOKIA) 1980ko hamarkadan sortu ziren euskarazko irratiak.

(EGOKIA) 1980ko urteetan sortu ziren euskarazko irratiak.

Molde hauek guztiak, berriz, ez dira egokiak:

(DESEGOKIA) 1980. hamarkadan sortu ziren euskarazko irratiak.

(DESEGOKIA) 1980. urteetan sortu ziren euskarazko irratiak.

(DESEGOKIA) 1980.eko hamarkadan sortu ziren euskarazko irratiak.

(DESEGOKIA) 1980.eko urteetan sortu ziren euskarazko irratiak.

(DESEGOKIA) 1980 hamarkadan sortu ziren euskarazko irratiak.

(DESEGOKIA) 1980 urteetan sortu ziren euskarazko irratiak.

Hamarkadaren hasierako urtearen azken bi zifrak bakarrik erabiltzen dira maiz (zifraz zein letraz), testuinguruagatik anbiguotasunik ez badago: *20ko urteak*, *20ko hamarkada*. Bestela, urtea osorik idatzi behar da: *1920ko urteak*, *1920ko hamarkada*.

Sobietar zinemaren 20ko urteetako aro modernistaren film nagusietakoa da.

Egia esan, 80ko urteek utzi zuten panorama tragikoak ez du bide horretan laguntzen.

Garai oparo horren ostean, 90eko urteek bizkar eman zioten euskaraz filmaturiko zinemagintzari.

Jakina denez, 60ko hamarkada aldaketa eta gatazka ugariren garaia izan zen Euskal Herrian.

(EGOKIA) 60ko hamarkada/hamarraldia

(DESEGOKIA) 60 hamarkada/hamarraldia

(DESEGOKIA) 60.eko hamarkada/hamarraldia



Horiek dira molderik hedatuenak hamarkada adierazteko. Bada beste modu bat, gutxiago erabilia: hamarkadaren hasierako urtearen azken bi zifrak bakarrik baliatzea hamarkada hori adierazteko.

Lehengo mendeko 60etan hiru eskola zeuden Asteasun.

80etan hasitako lanarekin jarraitu zuen batzordeak 90etan, baina lanerako askoz baliabide hobeekin.

90eko hamarkadak ume txikiekin harrapatu gintuen. ... Zuk nola gogoratzen dituzu 90ak, Izas?

## 18 Mendea eta milurtekoa adieraztea

Mendeak eta milurtekoak adierazteko, zenbaki erromatarrak erabiltzen dira beti.

(EGOKIA) XXI. mendea

(DESEGOKIA) 21. mendea

Urteekin gertatzen den bezala, mendea gure aroaren aurrekoa edo ondokoa dela zehaztu behar izanez gero, *K.a.* (Kristo aurreko) eta *K.o.* (Kristo ondoko) laburdurak erabiltzen dira. Ez da erabili behar minus zeinua mendearen edo milurtekoaren aurretik gure aroaren aurrekoa dela adierazteko.

*K.a. IV. mendetik K.o. I. mendera arte iraun zuen.*

*Inbasio indoeuoparrek, K.a. I. milurtekoan, nekazaritza eta abeltzaintza ustiatzeko teknika berriak eta eraginkorrak ekarri zituzten.*

Terminologia neutralagoa edo inklusiboagoa erabiltzearen (erlijio edo zibilizazio bati erreferentzia ez egiteko), beste laburdura batzuk baliatzea proposatu da: *o.a.a.* (oraingo aroaren aurreko) eta *o.a.* (oraingo aroko), baina oso gutxi erabiltzen dira.

## 19 Iraupena adieraztea

Ondoz ondoko bi urte edo gehiago —edo bi mende edo gehiago, edo bi milurteko edo gehiago— irauten duen aldi bat adierazteko, hasierako urtearen —edo mendearen edo milurtekoaren— eta amaierako urtearen —edo mendearen edo milurtekoaren— zifrak marratxo batez lotzen dira eta ez barra etzan batez.

(EGOKIA) 1914-1918ko gerlan hilen oroitarran otoitz batzuk egin zituen.

(DESEGOKIA) 1914/1918ko gerlan hilen oroitarran otoitz batzuk egin zituen.

I-IV. mendeetako hondakin erromatarrak aurkitu dira Corella aldean.

Txanpon guztiak K.a. 105.-K.o. 82. urteen artekoak dira.

San Telmo museoaren katalogoan K.a. II.-I. gizaldietakoa dela adierazten da.

2018-2022 bitarteko plan estrategikoa egiteko mintegia izango da gaur.

2023-2024 ikasturtea



Modu laburtuan ere adieraz daiteke bigarren urtea, azken bi zifrak bakarrik idatzita, baina, horretarako, bi urteen lehenengo bi zifrek berdinak izan behar dute.

(EGOKIA) 1898-1900 artean eraiki zen Bilboko Ibaigane jauregia.

(DESEGOKIA) 1898-00 artean eraiki zen Bilboko Ibaigane jauregia.

(EGOKIA) 1999-2011 bitartean alkate izan zen bere sorterrian.

(DESEGOKIA) 1999-11 bitartean alkate izan zen bere sorterrian.

2023-24 ikasturtea

Arras bertzerik izan zen 1939-45eko gerlaren ondotik.

1936-39ko bizipenak gertutik ezagutu dituzte ikastolako ikasleek.

Mariskalak mirespena sortzen zuen 1914-18ko gerrako gudarien artean.